

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES Y DE LA COMUNICACIÓN

**EGUNGO MUNDUKO GATAZKAK ETA BEREN
SUSTRAI HISTORIKOAK:
LIBANO, BARNE-EGITURA ETA KANPO-ERAGI-
NAREN AZTERKETA**

GRADU AMAIERAKO LANA
POLITIKA ZIENTZIAK ETA KUDEAKETA PUBLIKOA
NAZIOARTEKO HARREMANETAN AIPAMENA
GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
IRAILAK 2018

EGILEA: **ANDER GUMUZIO ARKOTXA**
TUTOREA: **FERNANDO MARTÍNEZ RUEDA**

Libano: Egitura politiko garaikidea eta kanpoko eraginaren azterketa.

Laburpena

Jaiotzatik bertatik, Libano, oso herrialde ezegonkorra izan da, gizarte mailan zein politikoan. Boterearen banaketa konfesionala, komunitateen arteko lehiak eta desberdintasun erlijiosoak herrialdea ezegonkortu duten faktoreak izan dira, alditan barne borrokak eratuta. Gainera, Ekialde Hurbilean, alegia, munduko lekurik gatazkatsuenetariko batean, dagoen herrialde txiki honek kanpo eragin handia jasan du, beste ezegonkortasun iturri bat suposatu duena. Asko izan dira potentzia atzerritarren interesak Libanon. Frantziaren mandatu kolonialetik hasita siriar okupaziora kanpo eragina etengabea izan da. Gertakizun internazionalak ere eragin dute Mediterraneoko herrialde honetan. Horren adibide dira Lehenengoko Intifada, Sobietar Batasunaren erortzea edota Siriako egungo guda. Horregatik, Gradu Amaierako Lan honetan, Libano kaltetzen duten ezegonkortasun faktore desberdinak aztertzea bilatzen da. Horretarako barne egituratik hasiko naiz kanpo eraginak aztertzen jarraitzeko. Zedroaren herrialdean ezegonkortasuna nondik datorren ikusteko lehenik barne-politikaren azterketa egingo dut gero historiara jotzeko. Historia zientzia politikoko tresna bezala erabiliko dut, kanpo injerentziek Libanoko ezegonkortasunean zein zentzutan eragin duten ikusteko.

Resumen

Desde su nacimiento el Líbano es un país muy inestable tanto en lo político como en lo social. El reparto de poder confesional, las disputas intercomunitarias y la variedad religiosa han sido factores que han desestabilizado el país, llevándolo en ocasiones a conflictos internos. Pero este pequeño país situado en una de las zonas más convulsas del planeta, el Oriente Próximo, también ha sufrido una fuerte intervención extranjera, suponiendo esto otra fuente de inestabilidad. Han sido muchos los intereses de potencias extranjeras en el Líbano. Desde el mandato colonial francés hasta la ocupación siria la influencia extranjera ha sido constante. Los sucesos internacionales también han influido sobre este país mediterráneo, como puede ser la Primera Intifada, la caída de la Unión Soviética o la actual guerra en Siria. Es por ello que en este Trabajo de Fin de Grado se pretende evaluar los diferentes factores de inestabilidad que afectan al Líbano. Empezando por el plano interno para seguir por el externo. Para poder ver de donde proviene la inestabilidad en el país del cedro primero haré un análisis de la política interna para luego recurrir a la historia y usarla como herramienta para ver en qué medida las injerencias externas han contribuido a esta inestabilidad.

Résumé

Depuis ses débuts, le Liban est un pays très instable autant politiquement que socialement. La répartition du pouvoir confessionnel, les disputes intercommunautaires et la variété religieuse ont été des facteurs qui ont déstabilisé le pays, l'amenant parfois vers des conflits internes. Mais ce petit pays situé dans une des zones les plus conflictuelles de la planète, le Proche Orient, a également été tourmenté par une forte intervention étrangère ; cela suppose alors une autre source d'instabilité. Il y a eu beaucoup d'intérêts venant des puissances étrangères au Liban. Depuis le mandat colonial français jusqu'à l'occupation syrienne, l'influence étrangère a été constante. Ainsi, les événements internationaux ont eux aussi influencé le pays méditerranéen, comme pourraient l'être la Première intifada, la chute de l'Union Soviétique ou l'actuelle guerre en Syrie. C'est pour cela que pour ce Mémoire de fin de licence, on va évaluer les différentes causes de l'instabilité affectant le Liban. Le début portera sur le plan interne, et on continuera sur le plan externe. Pour pouvoir voir et comprendre d'où vient l'instabilité du pays du cèdre, je ferai d'abord une analyse de la politique interne pour après faire appel à l'histoire et l'utiliser comme un outil pour voir dans quelles mesures les ingérences externes ont contribué à cette instabilité.

Abstract

Since the beginning, Lebanon has always been an unsteady country, politically and socially. The distribution of confessional power, rows between its communities and religions have been causes that have unbalanced the country, leading it in some occasions to inner conflicts. But this small country -located in one of the most tumultuous places of the planet, the Near East- has also suffered from foreign interventions, implying once again another source of instability. There have been many incentives from foreign powers in Lebanon. From the French colonial rule to the Syrian occupying forces, foreign sway has been steady. International events have also had their influence on the Mediterranean country, so as the First Intifada, the dissolution of the Soviet Union or the prevailing war in Syria. That is why in this final essay, we will intend to appraise the different factors of instability affecting Lebanon. We will start with the internal factors and then with the external. To acknowledge where this instability of the cedar country comes from, I will firstly do an inner political analysis to resort to history and use it as a tool to see how external interventions have contributed to this instability.

AURKIBIDEA

• 1. Sarrera	5
• 2. Sistema politikoa eta egungo gizartea Libanon.....	7
- 2.1. Ta'ifeko akordioetatik sortutako sistema politikoa.....	7
- 2.2. Komunitate erlijiosoak, oreka hauskorra.....	11
- 2.3. Aktore politikoak, alderdi sistema.....	13
- 2.4. Gizarte sistema, desberdintasunen herri bat.....	17
- 2.5. Estatu <i>minimoa</i>	20
• 3. Kanpo esku-hartzeak Libano garaikidean.....	22
- 3.1. Frantzia, interes eta eragin iraunkorra.....	22
- 3.2. Libano Guda Hotzaren testuinguruan.....	26
- 3.3. 1975ko guda zibila, kanpo faktoreak.....	29
- 3.4. Siriar okupazioa.....	32
• 4. Ondorioak.....	37
• 5. Glosarioa.....	41
• 6. Bibliografia.....	46

1. SARRERA

Gradu Amaierako Lan honetan Libanok duen barne egitura eta kanpo eraginak aztertuko dira. Lehenengoko zati batean barne politikaren azterketa egingo da, non sistema politikoa aztertuko dudan, Estatuaren berezitasunak kontuan hartuta. Libanoko sistema komunitarioaren azalpena ere egingo dut, komunitate bakoitza ordezkatzeko alderdiak aurkeztuz. Estatuaren forma, gobernuak, gizarte egitura, aktoreak eta euren aliatuak zientzia politikoaren ikuspegitik landuko ditut. Lanaren lehen zatian Libanoko egungo errealitatea ezagutzeko izango da. Libanon barne ezegonkortasuna sor ditzaketen faktoreak aztertu nahi ditut, herrialdearen sendotasunak eta ahuleziak identifikatuz. Lanaren bigarren zatian Libanoren gainean dauden kanpo eraginak bilatuko ditut, historia analisi tresna bezala erabiliz. Zati honetan Frantziak, potentzia kolonial bezala, Estatu Batuek eta Sobietar Batasunak, gerra hotzaren testuinguruan, edo Israel, Saudi Arabia, Iran eta Siriako potentzia erregionalek Libanoren gainean izan dituzten eraginak eta esku-hartzeak aztertuko ditut. Historian zehar eman diren gertakizunak ikertuz hobeto ikusi ahalko dira Libanok jasan dituen kanpo injerentziak. Barne eta kanpo desegonkortasun faktoreak aztertuz egoeraren analisi sakonago bat egin ahal izango dugu horrela lan galderei erantzuteko.

Beraz, lan honen helburua Libanon dagoen gizarte- eta politika-desegonkortasuna nondik datorren ikustea da. Barne eta kanpo faktoreek sortzen dute Libanoko desegonkortasuna. Horregatik, nire asmoa bi hauetatik zeinek duen adierazgarritasun handiago ikustea da. Lanaren hipotesia kanpo injerentziak Libanoko desegonkortasunaren arrazoi nagusia direla izango da. Hipotesi horrek egituratuko du lana. Arrazoi horregatik, lehenik barne politikaren azterketa egingo da, gero kanpo eraginak aztertzeko. Izan ere, azterketa ordena honetan eginez, hobe ikusi ahal izango dira herrialdearen egungo ezaugarriak zein garai historikotatik datozen. Historia izango da kanpo eraginak aztertu ahal izateko erabiliko dudan tresna. Historiaren azterketari esker iraganeko gertaturikoak egungo errealitatea nola baldintzatzen duen ikusiko dugu. Bestalde lanean zehar beste lan galdera batzuk sortuko dira: Libanoko sistema ekonomikoa, krisi humanitarioa eta sistema politikoaren jatorria non dauden. Galdera guzti hauek Libanoko azterketa orokor bat egiten duen lan honetan zehar zehaztuko dira. Galdera hauek erantzuteko erabiliko diren idatzi akademikoak, lehen mailako kazetaritza artikuluak eta datuak izango dira.

Arrazoi ugari daude honelako lan bat egiteko. Egun Ekialde Hurbilean bizi den egoera korapilatsuan harrapatuta dago Libano. Mugak Israel eta Siriarekin ditueneguz, egokia da herrialde horren egoeraren azterketa egitea. Munduaren begiradak erakartzen dituen zonaldean dago, baina ez dago haren inguruko berri askorik eta are gutxiago euskaraz idatziak. Batek daki Libanok bizi duen ezegonkortasunak barne gatazkaren bat sortarazi ote dezakeen, iraganean gertatu bezala. Horregatik akademiaren ardura da gerta daitekeenaren aurrean prest egotea eta arazoak aurreikusten saiatzea. Lan honi esker desegonkortasun libanoarraren iturria non dagoen ikusi ahal izango da. Bestalde komenigarria da herrialde honen azterketa egitea, bertan politika zientziaren paradigma ugari batzen direlako. Zientzia Politikoan aztertzen diren gai bitxi askok eredu aurki dezakete Libanon. Komunitate arteko boterearen banaketa konfesional eta konsoziatiboa, paradiploaziaren fenomeno, edota Estatu Minimoaren antolaketa ikusi ahal dira, beste subjektu batzuen artean. Gainera akademikoki ekarpen baliotsua egiten da lanean, zientzia politikoen eta historiaren tresnak konbinatzen direlako herrialde baten analisi politikoa egiteko. Horretaz gain, glosario bat gehitu zaio lanari irakurketa erraztearren.

2. SISTEMA POLITIKOA ETA GIZARTEA EGUNGO LIBANON

Libano kanpo interesen aurrean zein egoeratan dagoen ulertzeko barne politikaren eta Estatuaren egituraren erradiografia bat egingo dugu. Guda zibilaren amaierak zer suposatu zuen ulertu behar da, hortik sortu baitzen Libano berria. Beharrezkoa dugu Libanoren barne egoeraren jakitun izatea atzerriko interesak zein mailataraino heldu daitezkeen ulertzeko. Horretarako sistema komunitarioak nola funtzionatzen duen jakin beharra dago. Aktore politikoak zeintzuk diren eta zein interesetara lotzen diren ezagutuko dugu. Gizartearen bizi baldintzak ikusiko ditugu, egon daitezkeen fideltasun eta areriotasunak ezagutzeko. Eta azkenik Estatuaren papera zein den ikusiko dugu.

2.1. Ta'ifeko akordioetatik sortutako sistema politikoa.

Libanoko gudan (1975-1990) Siriak bere interbentzioarekin hegemonia militarra lortu eta 1989an Ta'if-eko akordioetarako bidea ireki zuen. Akordio hauetan Libanoko sistema politikoak izango zituen ezaugarriak definitu ziren. Hauek 1943an egindako paktu nazionalean oinarritu ziren, komunitateen arteko boterearen banaketa konfesionala mantenduta. Milizia guztiak armak uztera behartuak izan ziren, Hezbollah salbu, Siriaren aliatua izanik honen onespena baitzuen. Horrela, Siriaren okupazio militarpean bake garai berri bat hasi zen, non estatuaren segurtasun zerbitzuen eta herrialdearen berreraikuntza gertatu zen. 2005eko otsailean Rafik Hariri Lehen Ministroa atentatu batean erailia izan zen. Horrek milaka herritar atera zituen kalera Siriaren okupazioaren amaiera aldarrikatzeko, "zedroen iraultza" bezala ezagutu ziren protestetan. Gizartearen zati batek Siriaren eskua ikusten zuten atentatuaren atzean eta berari leporatu zioten, nahiz eta, ezin izan den frogatu. Aldarrikapena atentatuaren urte horretako apirilean bertan bete zen. Horrela heldu zen Libano egun daukan sistema politikora. Gaur, beste batzuk dira herrialde txiki honen arazo eta erronkak. Siriako gudak, errefuxiatuen krisiak eta Hezbollahen parte-hartze armatuak kezka sortzen dute Libanon. Kanpo esku-hartzeak tentsioak eragiten ditu, 2017an, Saudi Arabiak Saad Haririrekin eragindako krisia bezalakoak¹. Eta gainera aldaketa demografikoek azkeneko urteetan komunitateen artean lortu diren orekak mehatxatzen dituzte.

¹2017ko azaroaren 4ean Saad Hariri lehen ministroa Saudi Arabiako Mohamed Bin Salman printzearekin Riaden bildu zen. Bileraren ostean Libanoko lehen ministroa 18 egunez atxikita izan zen eta dimisioa aurkezten zuen bideo bat grabatzera behartua izan zen. Honek krisi diplomatiko bat sortu zuen Libano eta Saudi Arabiaren artean, azkenean Frantziako Presidentea zen Emmanuel Macronen esku hartzearekin krisiari amaiera eman zitzaion. Krisi diplomatikoan sakontzeko: SÁENZ DE UGARTE, Iñigo (2017). "El misterioso caso del primer ministro libanés secuestrado en Arabia Saudí" El Diario.es. https://www.eldiario.es/internacional/Libano-Hariri-secuestrado-Arabia-Saudi_0_706929750.html 2018/06/11 Kontsultatua.

Ta'ifeko akordioetatik sortutako Libanoko egitura politiko berria guda aurrekoaren oso antzekoa da. 1943an, Libanok independentzia lortu zuenean, momentuko aktore erlijioso eta politikoek Paktu Nazionala adostu zuten. Horren arabera, komunitate erlijiosoek boterea kuoten bitartez banatzea erabaki zuten, sistema errepublikano bat sortuta. Libanoko sistema politikoak modelo konfesional eta konsoziazionala izango zuen (Lijphart,1995:275). Demokrazia konsoziatiboan komunitate bakoitzak bere botere kuota finkoa dauka eta garapen politikoa lortzeko etengabe akordioak hartzea beharrezkoa da. Gainera, beto-jokalarien jokoaren logikaren barnean beto-eskubidea daukaten agente ugari sortu ziren (Tsebelis,2002:32). Horrela komunitate batek besteen gaintik botere politiko gehiegi ez lortzea bermatzen zen. Ta'ifeko akordioak egin zirenean helburuetako bat egonkortasun instituzionala bilatzea izan zen. Horretarako 1943ko Paktu Nazionalaren antzeko sistema berregin zen. Momentu hartan hori zen bakea lortzeko zegoen bidea, komunitateek euren botere esparrua berreskuratu behar zuten. Luzera begira, horrenbeste betodun agente izateak aldaketak motelak eta kontsentsu handikoak izatera behartu du, kasu batzuetan politikaren funtzionamendu arrunta oztopatuz. Izan ere, Estatuaren indarrak txikia izaten jarraitzen du komunitateen arteko tira-birak direla eta.

Ta'ifeko bake konferentzietan hitzartutakoa 1926tik existitzen zen konstituzioari gehitu zitzaion, testuaren barruan sartuta. Akordioetatik aurrera kargu gorenak talde sektario zehatz batzuen kideen artean banatuko dira, talde txikienak horietara heltzeko bidetik baztertuta. Kristauek estatuaren presidentzia izango dute, sunitek gobernuaren burua eta xiitek parlamentuko presidentea. Akordioek komunitate erlijiosoen arteko botere oreka aldatu zuten. Guda aurretik kristau maronitek parlamentuko eserlekuen gehiengoa zuten, non kristauek eskuratzen zituzten sei eserlekuko, musulmanek bost lortzen zituzten. Egungo egoeran parlamentuko eserlekuak kopuru berdinean banatzen dira. Bestalde administrazioaren goi karguen kuotak aldatu egin dira kristauen pisua musulmanen faborean gutxituz. Honez gain behe mailako administrazioetan jada ez dira kontuan hartuko komunitate erlijiosoak. Erregimena presidentzialista izatetik parlamentarioa izatera aldatu zen. Beraz, Lehen Ministroak boterea irabazi du, nahiz eta presidentearen papera garrantzitsua izaten jarraitu. Oraingo egoeran parlamentuak estuago kontrolatzen ditu gobernuaren ekintzak. Akordioak egin ziren momentuan kristauek begi txarrez ikusi zituzten, musulmanek garaitu zituztela sentitu baitzuten. Kristauek botere kuota galtzearen beldurra zuten, "beldurraren faktorea" deitu den egoera, alegia. Beldur hori akordioak baldintzatu zituen faktoreetako bat izan zen, negoziazioak konplikatu baitzituen. Komunitate erlijiosoetatik presio handia jasan behar izan zuten dokumentua sinatu zuten diputatuek. Bestalde akordio horiei leporatu

zaien beste ondorio bat Libanok Siriarekiko hartzen zuen mirabekeria izan da. Musulmanen artean talderen bat mesedetuta atera bada xiitak dira. Parlamentuan pisua hartu dute eta Hezbollah milizia xiitak armak mantentzen jarraitzen du. (Gutierrez De Terán, 2003: 182)

Sykes-Pikot eta arrakastarik gabeko Sèvresko akordioen ostean Frantziak gaur Siria eta Libano diren lurraldeak irabazi zituen. 1923an Libano Handia Siriatik banatu egin zen. Horrela eskualdean gutxiengoa ziren kristauak gehiengo demografikoa lortu zuten herrialde berrian. Kristauen kontrola ziurtatuz Frantziak bere interesak hobe babestu zitzakeen Ekialde Hurbilean. Libanoko independentzia batez ere komunitate kristauak burutu zuten eta 1943ko paktu nazionalean boterearen kontrola ziurtatu zuten. 70eko hamarkadatik Libanok jaso duen milaka errefuxiatuen jarioak 43an zegoen komunitate erlijiosoaren arteko oreka demografikoa aldatu egin zuen. Ta'if-eko akordioetan kristauak zeukaten aktibo garrantzitsuena, Presidentzia, alegia, ahuldu zen. Libanoko Presidentea, aipatu bezala beti kristau maronita izan behar dena, sei urterako aukeratu da. Parlamentuak aukeratzen du. Hautagaiak lehenengoko itzulian parlamentuaren bi herenen bozka behar du. Bozka hauek lortu ezean bigarren itzuli bat egongo da, non gehiengo sinplea eskuratu behar izango duen. Parlamentuaren zatiketa dela, normalean presidentearen aukeraketa konplikatu egiten da. Alderdi askoren arteko akordio handi baten bitartez aukeratu behar izaten dira Presidenteak. Horren adibide dugu 2014ko martxoaren eta 2016ko urriaren artean Presidenterik aukeratu ez izana. Azkenean Siriaren okupazioaren garaian erbestean egon zen Michel Aoun aukeratu zuten. Presidentearen funtzioen artean Lehen Ministroa aukeratzea eta kargutik kentzea dago. Lehen Ministroa, musulman sunita izan behar dena, aukeratzen duenean parlamentuak berretsi behar du. Presidenteak lege proiektuen gainean beto-eskubidea dauka eta parlamentua disolba dezake. Armadaburua ere bada, gatazka armatua hastekotan botere itzela duelarik, eta horregatik arrunta da presidenteak jeneral ohiak izatea.

Lehen Ministroaren eskuetan dago orain botere exekutiboaren indarra. Musulman suniten pisu demografikoa irabazi izanak botere handiagoa eman die, Lehen Ministroaren papera indartuta. Gobernuaren gidaria da eta berak aukeratzen ditu ministroak presidentearen onspen eta parlamentuaren berrespenarekin. Ministro kontseilua zuzendu egiten du, beraz politika nazionalaren gidaria da. Ministroen kontseilua agenda politikoa diseinatzeko batu egiten du eta ministroen arteko koordinaketaren arduraduna da. Ministro kontseiluan hartutako erabakien berri eman behar dio presidenteari eta bien artean lege dekretuak sinatu behar dituzte, beraz beto eskubidea dauka. Gobernu ministroek beto eskubidea lege eta erabaki batzuen gain daukate ere.

Horrela ulertzen da presidentziarik gabeko bi urteetatik ateratzean, Saad Haririk zuzendutako gobernuak 30 ministro izateak. Larrialdi politikoaren aurrean parlamentuko talde guztien arteko akordioa egin zen, talde bakoitzari ministro bat emanez. *Kataeb* alderdia izan ezik, ez zuela gobernuan sartu nahi izan. Hauteskunde sistema berria diseinatuko zen momentuan alderdi guztiek beto eskubidea izan nahi zuten. Beraz, praktikan, gizartean dauden talde erlijioso guztiek daukate beto eskubidea eta botere kuota garrantzitsu bat. Gobernantza zailtzen duena. (Jalloul, 2008)

Presidentearen eta Lehen Ministroaren paperak ikusita argi geratzen da Libanoko sistema politikoan parlamentuak duen garrantzia, erabaki gehienak honen onospena behar baitute. 128 eserleku ditu Libanoko Parlamentuak, kuota konfesionalen bitartez erdia kristauentzat gordea eta beste erdia musulmanentzat. Kristauen artean banatzen diren eserlekuak modu honetan banatzen dira: maronitek 34, ortodoxoek 14, ekialdeko kristauek 8, ortodoxo armenioek 5 eta katoliko armeniar, protestante eta beste korronte kristauen artean bana. Musulmanen 64 eserlekuen banaketa suniten eta xiiten artean 27 bana, drusoek 8 eta alawiek 2 da. Sistema parlamentarioa guztiz konfesionala da. Parte hartu ahal izateko komunitate erlijioso baten kide izatera behartuta daude parlamentariak, nahiz eta hauek batzuetan euren buruak laikotzat definitu. Talde erlijiosoek daukaten boterea ez galtzeko hauteskunde sistemaren edozein aldaketa geldiarazten dute eta estatuaren papera handitu beharrean euren komunitatearen indarra handitzea bilatzen dute. Parlamentuak 2017an hauteskunde sistema erreformatu zuen, barrutiak handiagoak eginez eta hauek 26tik 15era gutxituz. Gainera mundutik zabaldua dagoen diaspora Libanoarrari 6 eserleku ematen dizkio lege berriak, nahiz eta neurri hau 2022an sartuko den. Hala ere hauteskunde erreforma berrian ez da hauteskunde sistemaren funtsa aldatu, sistema konfesionala eta talde erlijiosoen arteko oreka berdina izaten jarraituko dira.

2.2. Komunitate erlijiosoak, oreka hauskorra.

Komunitate erlijiosoak eta politikan parte hartzen duten euren alderdiak oro har eroso daude daukaten pisu politikoarekin. Komunitate bakoitzaren alderdiak bere komunitateari laguntzea bilatzen du, ez du interes nazional batean pentsatzen. Horrela gertatzen da Estatuaren indarra areagotzeko saiakerak ezinezkoak izatea. Gizartetik estatuaren papera indartzeko hotzak entzun daitezkeen arren *zu'ama*-ak², elite ekonomiko eta politikoak, ez daude interesatuta Estatuaren garapen eta indartzean. Elite hauek sistema klientelarra mantentzen dute, horrela euren komunitatea hobeto kontrolatzeko. Ohikoa da alderdi eta komunitateen liderrak audientziak antolatzea non komunitateko kideek fabore pertsonalak eskatzen dizkiete hauei. *Zu'ama*-ek eta komunitateek Estatuarena izan beharko ziren eskumen ugari kontserbatzen dituzte: segurtasuna, gizarte-laguntzak edota ezkontzak adibidez. Alderdiek hartutako Estatuaren eskumenik nabarmenetariko bat kanpo politika da. Ofizialki Estatuak bere kanpo politika dauka baina praktikan komunitate bakoitzak bere kanpo harreman bereziak ditu “Paradiplomazia” deitu daitezkeen fenomeno batean. Kanpo aliatuak bilatzen dituzte Libanoko barne politikan indarra irabazteko. Testuinguru honetan ezinezkoa da Estatu libanoarrarentzat kanpo harremanen politika bateratu bat izatea, baina hau aurrerago landuko dugu. (Barroso Cortés, 2016: 5)

Orain interesatzen zaiguna komunitate erlijiosoek Libanoko barne politikan nola eragiten duten ikustea da. Komunitate erlijiosoek egun horren indartsuak badira, Inperio Otomandarrean zeukaten berezitasun juridikoengatik da. Inperioaren administrazioaz gain komunitate erlijiosoek ekintza administratibo batzuetaz ere arduratzen ziren. Inperioak hau egiten zuen okupatutako lurraldeetan kontrola hobetzeko, eta Libanon bereziki garrantzitsua izan zen lurraldeak zeukan aniztasun erlijiosoa dela. Modu honetan ezkontzak, herentziak, edukazioa, osasuna eta zergen batzea komunitatearen zuzendariaren eskumenak ziren. Hauek komunitateek osatu zituzten taifek kontrolatzen zituzten, euren liderrak botere nabarmena eskuratuz. Hauei *millet*³ deitzen zitzairen, juduen kasuan Errabino Handia eta kristauenean Patriarka izanik. Irudi hauetan lidergo erlijiosoa eta politikoa unitate berean batzen zen. Ohitura hauek egunerarte gutxi eraldatuz heldu dira. Lehen zegoen *millet* hori, egun *zu'ama* bihurtu da eta kontrolatzen dituzten komunitatetan estatuaren forma hartzen dute. Lehen bezala sistema judizialaren parte bat komunitate erlijiosoen esku dago estatutu pertsonaleko legeak arautzen dituztelako. Kode zibil laiko eta unibertsal bat ez dagoenez, erlijio bakoitzak bere printzipio, tribunal eta arau desberdinak ditu, hiritarren arteko desberdintasunak handituz.

² Begiratu glosarioan: “Zu'ama”

³ Begiratu glosarioan: “Millet”

Gainera kontuan hartu behar dira Libanon dauden komunitate desberdinak eta euren tamaina. Parlamentuko eserlekuekin atzeman daitekeen bezala talderik handienak sunitak (populazioaren %32 inguru)⁴, xiitak (%28) eta maronitak (%20) dira. Baina hiru komunitate handienetatik harago beste kristau batzuk daude (%14) ortodoxoak, katolikoak, melkitak, armeniarrek... erlijio musulmaneko drusoak (%6) eta judu gutxi batzuk. Horrenbeste talde erlijiosorekin ulergarria da komunitateen arteko mesfidantza eta aurretik aipatutako beldurraren faktorea guztien arteko Estatu bateratuaren proiektua konplikatzea. Honi gehitu behar zaio jada aipatutako aldaketa demografikoek tentsioak areagotzen dituztela. Musulmanek, sunitek batez ere, hazkunde demografiko nabarmena izan dute 70eko hamarkadatik eta kristauak beldur dira botere kuoten aldaketa bat egoteaz.

Arazo komunitarioak direla, Estatuak ez ditu errolda berririk egin 1932tik. Egun aurki ditzakegun populazio libanoarraren inguruko zenbakiak estimazioak dira. Estimazio hauek egitea denborarekin konplexuago bihurtu da, Libanok jaso duen inmigrazioa oso handia izan delako. 70eko hamarkadan Israeletik eta Jordaniatik ateratako errefuxiatu palestinar askok Libanon bilatu zuten babesa PAErekin batera, Libanok Israelekin daukan mugan berrantolatzea bilatzen zuela. Egun Siriako gudatik ihes egiten duten siriarrak daude, milioi bat inguru ACNURen arabera. Honek pisu demografikoen aldaketa eragiten du. Demografikoki Libanoko populazioa hirietan banatzen da bereziki Beirut eta Tripolin non libanoarren erdia baino gehiago bizi diren. Libanoko lurralde banaketa botere erlijiosoan mesedetan suertatzen da. Hiri handietan komunitateak auzoz auzo banatzen dira eta landa eremuetan herriz herri, landa eremuetan komunitateen arteko interakzioa ekidinez, baina hirietan berriz tentsioak eraginez. Beirut hiriburuan ikusten dira oberen tentsio komunitario hauek, hiria zatituta baitago. Beiruteko ipar-mendebaldean sunitak, hego-mendebaldean xiitak, ekialdean kristauak eta hegoaldean drusoak banatzen dira. Lidergo erlijiosoek komunitateen arteko harremana gutxiagotzeko asmoa dute, banaketa horretan datzalako komunitateen boterea. (Thomas de Antonio, 1993) (Gutierrez de Terán, 2003)

⁴ INTERNATIONAL FOUNDATION FOR ELECTORAL SYSTEMS (2011) "*Elections in Lebanon*" <https://qifanabki.files.wordpress.com/2011/10/ifes-lebanon-electoral-districts-2011.pdf> 2018/03/21 Kontsultatua.

2.3. Aktore politikoak, alderdi sistema.

Komunitate bakoitza politikoki nola eraldatzen den ikusiko dugu alderdi politikoaren azterketa eginez. Azaldu beharra dago momentu honetan bi koalizio handi daudela. Alde batetik Maiatzaren 8ko koalizioa, non Hezbollah, Amal mugimendua edo Michel Aounen Abertzale Askeen Mugimendua aurki ditzakegun. Bestetik Maiatzaren 14ko blokea dago, Saad Hariri Lehen ministroaren alderdiarekin, Etorkezuneko Mugimendua, Falange libanoarrak eta beste independente batzuk bilduz. Bi blokeen artean mugitzen den komunitate drusoak babestutako Alderdi Sozialista Progresista ere badago. Alderdi hauek, komunitateak bezala *zu'amek* kontrolatzen dituzte eta ohikoa da alderdietan saga familiarrak ikustea. Arrunta da Libano modernoaren historia politikora jotzean Hariri, Aoun, Gemayel edo Joublat bezalako abizenak ikustea, alderdien agintaritza aitetatik semeetara pasatzen baita.

Maiatzaren 8ko koalizioaren jaiotza ulertzeko 2005 urtera joan behar dugu. Urte horretan Rafik Haririren atentatuaren ostean hasi zen Zedroen Iraultzaren⁵ kontrako manifestaldiak izan ziren maiatzaren 8koak. Zedroen Iraultzak Siriak mantentzen zituen 14.000 inguru soldaduen alde egitea eskatzen zuen. Manifestaldi hauei aurre egiteko jaio zen gerora koalizio bihurtuko zen mugimendu hau. Mugimendu honek eskerrak ematen zizkion Siriari guda zibilarekin amaitzeagatik eta okupazio israeldarrari aurre egiten laguntzeagatik. Hasiera batean mugimendu honen atzean zeuden alderdiak Amal eta Hezbollah ziren. Bi alderdiak komunitate xiitari zuzenduak daude. Amal mugimendu bezala sortu zen 1974.urtean. Amalek “erresistentziarako destakamendu libanoarra” esan nahi du. Guda zibil libanoarraren bitartean antolakunde xii garrantzitsuenetarikoa izan zen. Bere hazkundera Libanon zeuden barne errefuxiatu xiien artean eman zen, batez ere 80ko hamarkadan. Honez gain beti egon da susmoa Iranen Errepublika Islamikoaren laguntza jaso dutela. Gudan milizia bezala antolatu ziren, nahiz eta komunitate xiita guda aurretik beste talde batzuk baino baketsuagoa izan. Orain ideologia sozial-kontserbadoreko alderdia da. Egun bere liderra Nabih Berri da, 1992tik parlamentuko presidente dena.

1982 urtean Amal mugimendutik ateratako militante batzuk Iraketik etorritako kleriko gazte xiekin batera gerora Libanotik kanpora ezagun bihurtu den Hezbollah taldea sortu zuten. Hezbollah Iranen eta Siriaren laguntzarekin hasi egin zen.1992an egun taldearen liderra den Hassan Nasrallah erakundearen idazkari nagusi bihurtu zen. Talde hau Libanoren hegoaldean Israelen nagusitasun militarri aurre egiteko eta iraultza islamikoa zabaltzeko finantzatu zuten. 1985 urtean euren lehenengoko komunikatu publikoan zapaltzaileen eta zanpatuen mundu bat deskribatu zuten eta lege islamikoaren arabera zuzendutako estatu libanoar baten alde egiten zuten apustua, beti demokrazia baztertu gabe. Ta'ifeko akordioetatik indartua atera zen armak mantentzean milizia bezala jarraitu zezaketelako. 2006 urteko uztailean Israelen

⁵ Begiratu glosarioan: “Zedroen Iraultza”

aurka 33 egunen guda izenez ezagutzen den gatazka burutu zuten. Gatazka horretatik jaso du Hezbollahk gizarte libanoarraren onospena, armada Israeldarraren erretreta lortu baitzuten eta horrela okupazioaren aurkako sinbolo bihurtu ziren. Mendebaldeko herrialdeek talde terrorista bezala zerrendatzen dute, baina Libanon alderdi politiko, ongintza erakunde eta milizia bezala ekiten dute. 2009an “Estatua eta sistema politikoa”⁶ deitutako manifestu batean erakundearen ildo politikoa definitu zuten. Honetan 85eko manifestuan ez bezala, estatu islamikoaren afera alboratu egiten dute eta sistema konfesionalaren eraldaketa bat aldarrikatzen dute. Libanorako irudikatzen duten sistema politiko berriak gehiengo demokrazia eta sekularizatua izan beharko luke. Gainera estatua indartu behar dela diote, horrela nazio proiektu bateratu bat eraikitzeko. 2009ko hauteskundeetan alderdi xiita bozkatuena izan zen eta 2016ko presidentearen aukeraketan erabakigarriak izan ziren. Siriako gudarekin liskar politikoen protagonista bihurtu da, Baabdako deklarazioa⁷ urratu egin baitute. Deklarazio honetan Libanoren gudarekiko neutralitatea aldarrikatzen zen, baina, hala ere, Hezbollahren milizia soldaduak bidali ditu Baxar al-Asaden alde borrokatzeko. 2018ko maiatzean ospatutako hauteskundeetan indartuta atera ziren bere blokeak diputatuak irabazi baitzituen.

Maiatzaren 8ko koaliziora parlamentuko eserleku gehien ematen dituen alderdia Michel Aounen Abertzale Askeen Mugimendua da. Hasiera batean alderdi hau Maiatzaren 14ko koalizioan zegoen, baina 2006ko otsailean Hezbollahrekin memodandum bat sinatzean koaliziotik kanpo geratu zen. Aoun bera, Siriaren arerio ohia izan arren, koalizio prosirioan sartu zen. Presidenterik gabeko krisian alderdiaren liderra presidente bihurtu zen, bere talde parlamentarioaren bozkarekin eta oposizioarekin akordio bat lortuta. Alderdi hau gehiengo kristau maronitaz osatua dago. Ideologikoki beren burua zentrokoa eta abertzale libanoarra definitzen dute. Azken boladan koalizioan dagoen alderdiak bultzatuta Estatua indartzearen apustua egin du eta ekonomikoki ezkererako bira egin du. Maiatzaren 8ko koalizioaren barne beste alderdi txiki batzuk ere badaude: Alderdi Libanoar Demokratikoa, komunitate drusoa ordezkatzeko, Marada mugimendua, eskumako kristauak, Ba'aht alderdia, panarabistak eta beste independente batzuk. Alderdi txiki hauek gudaren garaian milizia bezala funtzionatzen zuten eta 1990ean sistema politikoaren normalizazioarekin alderdi politiko modura antolatu ziren. Libanoko koalizioetan ohizkoa da alderdi bat koalizio areriora pasatzea, alderdiak txikiak baitira eta diputatuak modu independentean funtzionatzen dute. Momentu politikoa aprobetxatuz diputatu bakoitza bere komunitatearen interesen arabera aritzen da. Horregatik ez da harrizkekoa koalizioetan horren ideologia desberdinak dituzten alderdiak ikustea.

⁶ 2009ko Hezbollahren “*Estatua eta sistema politikoa*” komunikatua ikusteko <https://www.musulmanesandaluces.org/hemeroteca/101/manifiesto%20politico%20de%20Hizbullah.htm> 2018/03/04 Kontsultatua.

⁷ Begiratu glosarioan: “Baabdako deklarazioa”

Parlamentuan dagoen beste bloke handia eta 2016ko abenduan Saad Hariri Lehen Ministro bezala kokatu zuen koalizioa Maiatzaren 14koa da. Koalizio honek Zedroen iraultzan dauka jatorria. Gizartearen parte batek Siriaren eskuak ikusten zituen Rafik Hariri lehen ministroaren aurkako atentatuaren atzean. Koalizio hau Siriaren influentziaren aurkako plataforma bihurtu zen Etorkizuneko Mugimendua izenarekin. Alderdi honek politikari independenteak eta eskumako alderdi liberal txikiak batzen ditu ere. Ministro ohiaren semeak gidatutako Etorkizuneko Mugimenduak koalizioaren lidergoa dauka. Alderdi honek ematen dizkio koalizioari eserleku gehien. Alderdi hau 1992an jaio zen Rafic Hariri aberatsaren eskutik. Hau gudaren ostean lehen ministro izan zen 92-98 eta 2000-04 urteen artean. Bere agintaritza oso kritikatu izan da Libanoren berreraikuntzan korrupzio kasuak direla Munduko Bankuak berreraikuntzarako maileguak eman zituenean. Beiruten berreraikuntzan parte hartu zuen *Solidere* izeneko enpresarekin zituen harreman susmagarriak omen zituen. Gainera gudarekiko amnesia orokorra sustatu zuen gudako krimenak memoria kolektibotik ezabatuta. Gaur alderdia zentro eskumakoa bezala definitzen da eta herritar suniei bideratuta dago, nahiz eta alderdia sekular moduan aurkeztu. Ekonomia arloan neurri liberalak sustatzen ditu eta kanpo harremanetan Saudi Arabiaren aliatu bezala aritzen da. Ezaguna izan zen 2017aren azaroan Saad Hariri Bin Salman erregeari bisitan atxikitua izan zenean, Libanoko politikan presioa egiteko asmoz.

Maiatzaren 14ko koalizioa osatzen duten beste bi alderdi garrantzitsu ultra eskumako Indar Libanoarrak eta Falangeak, edo *Kataeb*, dira. Bi alderdi hauek Gemayel familiako kideengatik sortuak izan dira. Pierre Gemayel komunitate maronitan familia nabarmenatariko baten burua izan zen. 1936an Kataeb alderdia sortu zuen, garai hartan hain zabaldua zegoen eskuin muturreko ideologiarekin. Ideologia falangista kristau maronita apalen artean erraz zabaldu zen. Identitate moduan fenizismoa hartu zuten baita, aurrekari maronita antzinaroko Fenizioen oinordeko bezala bilatzen baitute, batez ere arabiarretatik eta panarabismotik aldentzeko. Pierre Gemayel Independentzia garaian politikari garrantzitsua izan zen eta gerora ministeritza ugari zuzendu zituen. 70eko hamarkadan Kataeb alderdia Israelekin aliatu zen eta guda hasterakoan bere milizia propioa sortu zuen Pierren Bashir semearen agintaritzapean. Hauek Indar Libanoarrak deituko ziren. 82an Bashir Gemayel Presidente aukeratua izan zen eta egun gutxitara hil egin zuten, Indar Libanoarrek erantzun bezala Sabra eta Xatilako⁸ sarraskiak burutu zituzten. Urte horretan bertan Amin Gemayel, Pierren beste seme bat, Presidente aukeratua izan zen Kataeb alderdiarekin. Egun alderdi biak koalizio anti-sirioan daude, ideologia abertzalea defendatzen. Oraindik ikus daiteke Gemayel familiaren itzal luzea Libanoko politikan.

⁸ Begiratu glosarioan: "Sabra eta Xatilako sarraskia"

Alderdiekin amaitzeko, komunitate Drusoa ordezkatzeko duen Alderdi Sozialista Progresistaren azterketa laburra egingo dugu. Kamal Joumblat izan zen alderdiaren fundatzailea 1949an. Joumblat familia imperio otomandarretik politikagintzan ibilitakoa da, beti drusoen lider bezala. Gudan Palestinaren Askapenerako Erakundearekin aliatuta egon zen. 77an Kamal hil egin zuten, omenez siriar espioitza zerbitzuengatik edo komunitate maronitaren kideengatik erailia izan zen, baina ezin izan da errudunik aurkitu. Hil zuten momentuan Siriak PAEren influentzia gutxitu nahi zuen eta Joumblatt horien aliatua zen, baina maronitek ere beren arrazoiak zituzten, izan ere maronita eta drusoen arteko aliantza historikoa apurtu baitzuen. Bere Walid semea izan zen alderdiaren lidergoarekin jarraitu zuena. Gaurko egoera politikoan alderdia ez da irmoki koalizioekin aliatzen. Ideologikoki sozialdemokratak dira eta estatu laikoa aldarrikatzen dute, horretarako kuota konfesionalak ezabatzea proposatzen dute. Drusoen berez ez daukate hautesle pisu handirik baina beti daude erabaki handietatik gertu, eurak baitira horiek hartzeko giltzarri. (Angoso García, 2008) (Velasco de Castro, 2008)

Ikus dezakegunez alderdien arteko distantzia ideologikoa nahiko handia da. Zaila da horrenbeste zatitutako parlamentu batean adostutako neurriak aurrera ateratzea. Alde batetik blokeen arteko banaketa nabarmena da, baina bestetik blokeen barnean alderdi aniztasun handia dago eta hori erabaki hartzeak zailtzen ditu ere. Egoera honetan ulergarria da presidentea edota gobernua aukeratzeko ordua beti korapilatsua izatea. Barne desadostasunak alderdiek dituzten kanpo harremanekin jokoan sartzen dira. Batzuetan alderdiek parlamentuan ezin dituzte erabakiak motu propioz hartu kanpo aliatuak, beste herrialde batek, baldintzatu egiten dituelako. Beraz esan dezakegu Libanoko alderdiak ez direla guztiz independenteak. Alderdiak beraiek atzerrian bilatzen dute laguntza gero herrialde barruan indartsuagoak izateko, baina kanpo aliatuak mendetasuna eskatzen dute. Horregatik ulertu behar da askotan alderdi libanoarren erabakiak kanpo eraginengatik kutsatuak daudela.

2.4. Gizarte sistema, desberdintasunen herri bat.

Herrialdeko leku batzuetan mendebaldeko herrien antzeko bizi maila altua lortu den arren, oro har Libano desberdintasunen lurralde bat da. Elite komunitarioen eraketa, hirietan aberastasuna pilatzea, ustelkeria, Estatu minimoa eta errefuxiatuen jariora gizartean ematen diren desberdintasunak eratzen duten faktoreen artean daude. Mota guztietako desberdintasunak aurki ditzakegu herrialde txiki honetan, baina batez ere ekonomikoak eta generokoak dira nagusienak. Komunitateen arteko desberdintasunak ere badaude, estatutu pertsonaleko legeak direla medio. Komunitateko kideak legedi desberdinei lotuta egoteak eta tribunaletan aurki daitezkeen ustelkeriak posizio desberdinean kokatzen ditu hiritar batzuk eta besteak epaitegien aurrean. Gainera aipatu behar da sektore publikoen ahuleziak baliabiderik gabeko jendea bere komunitateak ematen duen gizarte laguntzen eskuetan uzten duela, kasu askotan hauen behar-izanak bete gabe utziz. Horrez gain, kontuan izanik ikasketa publikorik ez izateak mugikortasun soziala eragozten duela, desberdintasuna pairatzen duen pertsona horretara kondenatuta dago. Desberdintasun hauek klabeak dira Libanon eman daitezkeen komunitateekiko fideltasunak eta erradikalismo erlijiosoak ulertzeko izan ere herrialdeari forma ematen diote.

Desberdintasun ekonomikoen harira, *Credit Suisse* finantza zerbitzu enpresak 2014an argitaratutako *Global Wealth Report*⁹ txostenean erakusten du nola Libano munduan desberdintasun ekonomiko gehien daukan hirugarren herrialdea dela. Finantza agentzia honek %85.8 an kokatzen du herrialdearen desberdintasun ekonomikoak neurtzen dituen Gini indizea. Hau oso datu altua izanik. Gizartea ehunekoetan banatzen denean ikus daiteke nola Libanoko populazioaren %0,3ak herrialdearen aberastasunaren %50 daukan. Munduko Bankuak berriz ez ditu datu eguneratuak eskaintzen baina, hala ere, Libanok aberastasunaren birbanaketan oso desberdintasun handiak dituela argi dago. Desberdintasun ekonomiko hauek gobernu ezberdinek burutu dituzten politika neoliberalen emaitza dira. Langabeziak eta bizitzaren kostu altuak desberdintasun ekonomiko hauek areagotzen ditu.

Desberdintasun ekonomiko hauek egiturazkoak dira, herrialdeak Inperio Otomandarrean jada komunitateen arteko desberdintasun ekonomikoak zituen. Inperioaren garaian sunitak ziren hirietan aktibo inmobiliarioen jabeak eta xiitak drusoekin landa eremuetako lur-jabeak. Frantziaren kolonizazioarekin komunitate kristauak nekazariak izatetik administrazioan lan-postuak eta boterea irabazi zituen. Horrela kide maronita batzuk finantzen munduan asko bereizi ziren, hauek mendebaldearekin harremanak izateko erraztasunak baitzituzten afinitate kulturala dela. Landa eremua ekonomikoki garrantzia galtzen joan zen heinean drusoak eta xiitak txirotuz joan ziren. 70eko errefuxiatu

⁹ CREDIT SUISSE AG (2014). "Global Wealth Databook 2014". Zurich: Research Institute (103.or) <https://publications.credit-suisse.com/tasks/render/file/?fileID=5521F296-D460-2B88-081889DB12817E02> 2018/04/13 Kontsultatua.

fluxuarekin txirotasunean bizi diren milaka palestinar bildu ziren errefuxiatuentzako kanpamentuetan eta egun berdin gertatu da Siriatic ihes eginda Libanon babesa bilatu dutenen artean.

Komunitateen barnean ere desberdintasunak nabarmenak dira. Aipatutako *Zu'amak* botere eta baliabide ekonomikoen monopolioa daukate komunitateetan. Hauek modu klientelarrean erabiltzen dituzte euren botere eta baliabideak. Lanpostu ugari lortzeko, administrazio publikoan batez ere, pertsona boteretsu baten laguntza eta oniritzia behar da. Ustelkeria kasuak ohikoak dira Libanoko egunerokoan, horregatik, eroskeriak bizitza ohitura dira. *Transparency International* gobernu kanpoko erakundearen arabera urtero argitaratzen duen Ustelkeriaren Pertzepzio Indizean¹⁰ Libano munduan korrupzio gehien daukaten herrialdeen artean sailkatzen du. 28 Puntuko indizearekin, 0 ustelkeria handia eta 100 gardentasun osoa bezala neurtuta, 180 herrialdetik 143. postuan geratzen da.

Ustelkeria politikoaren kasu ezagunenak Beiruten berreraikuntza proiektua gidatzen duen enpresa pribatuaren ingurukoak dira. *Solidere* enpresa izan da gudagatik suntsituta zegoen Beiruten zentro zaharra behera botatzearen eta bere lekuan luxuzko auzo bat eraikitzearen arduraduna. Enpresaren jaiokeran Rafic Haririren, Lehen Ministroa zenaren, eskua ikus daiteke, enpresaren akzioak baitzituen. Gobernuak Beiruten erdialdeko lursailak Solidere-ri saldu zizkion eta Hariri auzo berriaren eraikuntzarekin aberastu egin zen. Haririk Ongi publikoa berreraikuntzaren ideologiatik kanpo utzi zuen, berreraikuntza hau "neolibanismoaren" korrontearen arabera egingo baitzen (Corm, 2006: 268). Honez gain kalkulatu da 1990tik Libanoko kostaldean eraikitako eraikin berrien %48a lizentziarik gabe egindakoak direla, botere politikoak hau saihesteko ezer egin gabe. Izan ere politikan parte hartzen duen jende asko negozio-gizonak dira aldi berean eta euren kostaldeko gune turistikoak eraikitzen lehenak. Guda amaitzean ireki zen berreraikuntza garaia, hainbat ustelkeria kasu zenbakaitz utzi zituen. Garaiko elite kultural, politiko eta ekonomiko gehiena ustelkeria kasuetan nahastuak edo beste leku batera begira egon ziren. Korrupzio hau Estatuaren ahuleziaren arrazoietakoa bat da, eta aldi berean hiritarren arteko desberdintasunak areagotzen dituen faktorea da. Politikarientzat Estatu enpresa pribatuari trabak jartzen dion diru xahuketa baino ez baita.

¹⁰ TRANSPARENCY INTERNATIONAL (2017). "Índice de Percepción de la Corrupción 2017" Berlin: Transparency International. https://transparencia.org.es/wp-content/uploads/2018/02/tabla_sintetica_ipc-2017.pdf 2018/04/15 Kontsultatua.

¹¹ CUSACKS, Robert (2016) "Corruption on the coast: Lebanon for sale". Londres: The New Arab. <https://www.alaraby.co.uk/english/indepth/2016/10/14/corruption-on-the-coast-lebanon-for-sale> 2018/04/2018 Kontsultatua.

Aipatu bezala milioi bat errefuxiatu inguru heldu dira Libanora Siriako gudatik ihes eginik. Beste milioi erdi palestinar errefuxiatu daude ere. Pertsona hauen egoera oso latza da gehiengoa Nazio Batuak pobrezia neurtzeko 3.84 dolar mugatik beherako diru sarrerekin bizi baita. Gudatik ihesi Libanora heldu diren familiek zeuzkaten aurrezki eta baliozko ondasunak galdu dituzte, euren aurreko bizi kalitatea berreskuratzeko aukera galduz. Errefuxiatuen krisi hau krisi humanitario bat izateaz gain, beste krisi batzuk eratzen ditu Libano bezalako herrialde txiki batean. Errefuxiatuen olatuak krisi demografikoa eragiten du, egun biztanleen laurden bat inguru errefuxiatua baita. Honek testuan zehar aipatutako komunitateen arteko oreka apurtzen du, errefuxiatuen gehiengoa suniak direlako. Egoera hau segurtasun krisi bat eragiten du baita. Siriako gudan parte hartzen duten oposizio talde batzuk Libanon ezkutatzek, dakarten erradikalismo erlijiosoa areagotzen du. Bestalde errefuxiatuen fluxu amaigabea Libanok daukan ekonomia ahula krisira eramaten ari da, biztanleriaren %30a langabezia dago eta komunitate internazionalaren laguntza tantaka heltzen da. Azkenik krisi ekologikoa ere badago, herri eta hiriek izan duten hazkunde demografikoa dela zaborren kudeaketan arazoak sortu baitira. Errefuxiatuak iristearekin ireki diren krisi guztiak berez egonkortasun falta daukan herrialde bat eztanda sozial eta politikoaren mugan jarri du Libanoren kasuan. (Dahi,2008)

Testuinguru honetan emakumearen egoera ere tamalgarria da. Kontuan izan behar da inguruko herrialdeetan emakumearen egoera txarra dela oro-har, baina Libanon desberdintasun ekonomikoek eta komunitateen arteko lehia indartzen den patriarkatuak egoera latzagoa bihurtzen dute. Botere erlijiosoa hain indartsua da herrialde honetan, demokrazia gizonentzat erreserbatua dagoela dirudiela. Politikan parte hartzen duten emakumeak gutxiengo bat dira, 2017an parlamentuan zeuden 128 diputatutik soilik 4 emakumeak izanik. Arlo judizialean, komunitate bakoitzak daukan estatutu pertsonaleko legeak diskriminazioa sistematikoa bihurtu dute emakumeentzat. Diskriminazio kasurik larrienak dibortzioa eskatzerakoan ematen dira. Emakumeek ez daukate dibortzioa eskatzeko aukerarik, gizona da hori erabakitzeke ahalmena duena. Honez gain dibortzioa ematen bada arazo berri bat sortzen da, dependentzia ekonomikoa. Estatuak ez du senargabeko amentzako laguntzarekin ematen, eta senar ohia ez dago mantentze pentsiorik ematera behartuta. Kontuan izanik gainera ezkonduko emakumeen %34a baino ez duela lan egiten egoera konplikatuan daude dibortzioa eskatu nahi duten emakumeak, ez baitaukate independentzia ekonomikorik. Egoera larriagoa da emakume errefuxiatuen artea. Amnistia Internazionalen arabera hauek kanpalekuan jasotzen duten sexu-jazarpenak etengabeak dira. Beraz Libano mendebaldeko herrialdeetatik gertu dagoen bizi ohiturak izan arren, giza eskubideetan atzeratua egiten duen elementuak gordetzen ditu oraindik. (Corm, 2006) (Lion Bustillo, 2014)

2.5. Estatu *minimoa*

Libano ahula da atzerriko interes eta injerentzien aurrean. Azaldu dugun bezala, Libanoren ahulezia horren eragileetariko bat komunitateen artean ematen den aurkakotasuna da. Baina beste eragile bat estatuaren indar falta da. Talde komunitarioen arteko mesfidantzagatik euren artean botera banatzea saihesten dute eta ez dute Estatu indartzeko borondaterik. Gainera aipatu behar da, azkeneko hamarkadetan herrialdea gidatu duen klase politikoak neoliberalismoaren korrontea besarkatu izanak Estatuaren dimentsio txikian eragin duela. Gudatik ateratzean Libanoren berreraikuntzan hartu ziren neurri politikoak okerrak izan ziren. Jada txikia zen estatua gehiago txikitu zuten. Ekialde Hurbileko Suitzaren goitizena berreskuratzeko merkatu askea mesedetuko zuen neurri neoliberalak hartu ziren. Beraz garai hartan hartutako erabakiak Libanoren Estatuak daukan egoera makala azaltzen dute.

1992An Rafic Hariri, enpresari sunita, boterera heldu izanak guda aurreko Libanoren amaiera suposatu zuen. Orduetik herrialdea gizon bakar baten jabetza bihurtu zen. Hurrengoko urteetan diruaren eta finantza espekulazioaren baloreak izan ziren klase politikoa liluratu zuena. Guda garaian ohizkoa bihurtu zen Libanoko aberatsek gatazkagatik txirotuta zeuden lur-jabe txikien ondasunak erostea. Haririk Koro Saudiaren laguntzarekin hori bera egin zuen. Horrela gudaren amaierara munduko pertsona aberatsenen artean kokatu zen. Irabazi zuen diruarekin ezagun bihurtu zen eta Lehen Ministro izatera heldu zen. Baten boterean zegoela *Neoliberalismo* bezala izendatzen zuen politika aurrera eramanez. Hurrengoko urteetan aipatutako berreraikuntzan ustelkeria kasu amaigabeak egon ziren eta Estatuak egun oraindik zor itzela jasaten du. 2015 urtean Libanok 63 mila milioiko zor publikoa zeukan, BPGaren %142a suposatzen duena¹². Zor hau Estatuaren ahulezia erakusten du hartzekodunak izugarriko eragina baitaukate herrialdearen gain. Gainera Estatuak kontrolatzen zituen sektore estrategiko gutxi batzuk saldu egin ziren. *Neoliberalismo* honen funtsa Estatuaren interbentzioa minimora eramateko merkatu askearen aldeko neurri neoliberalak ezartzea zen. Horrela zergak %2 eta %50 tartean egotetik %2 eta %10 artean egotera bajatu zituen eta ekonomia oro har *dolarizatu* egin zuen. Politikariak Libano Ekialde Hurbileko finantzen erdigunean kokatu nahi zuten, guda aurretik zeukan estatusa berreskuratu nahian. Baina ez zuten aintzat hartu gudaren 15 urteetan eskualdearen egoera guztiz aldatu zela. Jada zonaldeko edozein herrialdek zeukala lehen Libano bereizten zuen aurrerakuntza teknologikoa, horregatik Libanoko Estatuak inbertitutako dirutza ez zituen eman pentsatutako etekinak.

¹² EXPANSIÓN (2015) “*Deuda pública de Libano*”. Expansión, Datosmacro.com. <https://www.datosmacro.com/deuda/libano> 2018/06/14 Kontsultatua.

Bestalde aipatutako “paradiplomazia”ren gaia dago. Estatu Libanoarraren jaiotzatik bere kanpo politika ez ohizkoa izan da beste herrialde batzuekin alderatuta. Hau komunitate desberdinen arteko desberdintasun eta zatiketagatik eman da. Komunitate desberdinen lidergoak izan dira euren kanpo politika propioa garatu dutenak. Kanpo politika hau bi motatako helburuak izan ditu. Batetik talde politiko eta komunitarioek ideologia transnazional batera atxikitzeo nahia eta bestetik kanpo aliantzak bilatzea horrela barne estatusa indartzeko. Talde desberdinek garatzen duten paradiplomazia Estatuaren kanpo ekintzarekin talka egiten du. Estatuarentzat ezinezkoa da kanpo politika bateratu bat egitea komunitateak ez direlako gai gauza hauek adosteko. Libanok daukan diplomaziaren barne blokeoa eta kanpo potentzien injerentzia etengabeak, Estatuaren erakundearen bideragarritasunerako mehatxu bat dira.

Beraz, egun Libanon geratu den Estatu ez da gai kanpo injerentziak gelditzeko. Alde batetik aktore politikoek boterea irabazteko kanpo laguntza bilatzen dutelako, atzerriko interesei bide irekia utziz. Eta bestetik Estatu gai bat egiteko borondaterik ez dagoelako. Horrela armada libanoarraren eta segurtasun indarren baliabideak txikiak dira. Justiziaren arlo batzuk komunitateen eskuetan daude. Sektore estrategikoak inbertsore atzerritarrek kontrolatzen dituzte. Estatuak gizarte laguntzarik ez ematean komunitateek horren ardura hartzen dute. Guzti honek Estatuaren espresioa minimora gutxitu egin du eta atzerriko injerentzien aurreko defentsa minimora bajatu da. (Corm, 2006) (Barroso Cortés, 2016)

3. KANPO ESKU-HARTZEAK LIBANO GARAIKIDEAN

Historian zehar amaigabeak izan dira egun Libano osatzen duen lurralde honetatik pasa diren kultura, herri eta inperioak. Feniziarrek, Persiarrak, Alejandro Handia, Erromatarrek, Musulmanak, Otomandarrek eta Frantsesak. Inperio handi guzti hauek kontrolatu nahi izan dute Mediterraneoak bustitzen duen kostalde zati hau. Egungo herrialde boteretsuenek antzinakoen antzera jarraitzen dute lur zati honengatik lehian. XX. mendearen bigarren zatian politika internazionalaren begiradak pilatu dituen eskualdea daukagu aztergai. Frantziaren interbentziotik hasita Siriako okupaziora Libanoren gain egon diren kanpo esku hartzeen azterketa historikoa egingo dugu. Lanaren sarreran azaldu dugun bezala Libanoko barne desegonkortasuna eta kanpo injerentzien artean dagoen lotura azertu nahi dugu. Datozen orrialdeotan ematen dugun begirada historikoak lagunduko digu gure galdera nagusiari erantzuten, alegia, zenbateraino barne desegonkortasuna kanpo faktoreetatik eratortzen den.

3.1. Frantzia, interes eta eragin iraunkorra.

Lehenengo Mundu Gerra ostean Frantzia eta Erresuma Batuak Inperio Otomandarrarenak ziren lurraldeak irabazi zituzten. Guda amaitu aurretiko negoziaketetan, Sykes-Picot eta arrakastarik gabeko Sèvreseko itunetan, guda irabazi zuten bi inperio kolonialen artean Ekialde Hurbila banatu zuten. Britania Handiaren eskuetan Irak, Palestina eta Transjordia geratuko ziren eta Frantziaren eskuetan Siria eta Libano. 1922an lur hauen banaketa ofizialki onartua izan zen Nazioen Ligaren mandatu sistemaren arabera, baina jada “de facto” kontrolatzen zituzten honen aurretik. 1920an Frantziak bere lurraldeak bi zatitan banatu zituen, Siria alde batetik eta bestetik Libano, Estatu berri bat emanez, “Libano Handia” bezala ezagutzen dena. Estatu berri honi Tripoli iparraldean, Sidon eta Tiro hegoaldean eta hiriburua izango zen Beirut erdialdean eman zion Frantziak Libano Menditik ateratzen ziren eskakizun Maronitei kasu eginez. Musulmanek oro har Siria eta Libano batuta estatu bakar bat osatu nahi zuten Faysal erregearen agintepean. Kristauak ordez estatu Libanoar bat nahi zuten horrela gehiengo demografiko bat eskuratzeko. Frantziak Libanoren Estatu sortzea aukeratu zuen horrela bere influentzia hobeto maneiatzeko. Kristauak Libanon gehiengoa izanda kontrol estuago bat bermatzen zuten lurraldearen gain.

1926ean Libanok gorpuzkera liberaleko konstituzio bat hartu zuen, 1875ko Konstituzio Frantsesean oinarrituta. Musulmanak ez ziren ados egon mandatu frantsesak egindako lurralde banaketekin. Hauek Inperioaren lurralde arabiarrek batuak nahi zituzten baina hala ere pixkanaka joko politiko berrian sartzen joan ziren. Konstituzio honek ordezkarien bitarteko biltzar bat sortu zuen, eserlekuen banaketa konfesional bat ezarriz. Modu honetan mandatu frantsesean konfesionalismoa instituzionalizatu egin zen eta honek gaurdaino iraun du. Hau desastre bat izan da komunitateen arteko bakea mantentzeko orduan, komunitateen arteko tentsioak areagotuta. Izan ere lehen arlo

erlijiosoan geratzen ziren liskarrak, konfesionalismoaren instituzionalizazioarekin liskar politikoak izatera pasatu ziren. Baina 1926an eta hurrengo urteetan konfesio desberdinen artean gestionatutako herrialdeak askatasun eta bake maila nabaria lortu zuen. Izan ere, Frantziaren eskutik heldu zen sufragio unibertsala momentura arte politikoki baztertuak izan ziren druso eta xiitak joko politikoan sartu zituen. Mandatuaren urteetan gainera ordezkari aukeratuek euren autu politikoengatik eta ez konfesionalengatik hartzen zituzten erabakiak eta denborarekin kristau eta musulmanak ados jarri ziren aginte frantsesaren aurka jotzeko.

1941ean Bigarren Mundu Gerrako gertakariekin Frantziaren agintea kolokan zegoen. Urte horretan liskarrak eman ziren Vichyren gobernuaren eta De Gaulle jeneralaren arteko jarraitzaileen artean. Bigarrenak, Erresuma Batuen laguntzarekin, garaile atera ziren, Frantzia askeko gobernuak independentziaren hitza emanez Libano eta Siriari. 1943an politikari Libanoarrak Frantzia Askearen gobernuaren promesari itxaroteaz nekatuta 1926ko konstituzioari emendakin bat egin zioten. Honetan mandatu frantsesarekin zer ikusia zeukaten artikulua ezabatu ziren eta arabiera hizkuntza ofizial bakar bezala geratu zen. Frantzia hau saihesten saiatu zen baina indar politiko libanoarren batasunaren eta Britania Handiaren independentziaren aldeko interesen aurrean ezin izan zuen gauza askorik egin. 1943ko paktu nazionala komunitate desberdinen arteko ordezkartza oreka adostuz eta independentziarako konpromisoa hartuz egin zen. Honetan Frantziaren agintepean egon zen sistema konfesionala mantendu zen. Modu honetan Frantziaren esku hartze zuzena Libanotik irten egin zen, eta orain bere influentzia modu ez zuzenean egin beharko zuen. (Méouchy, 2002)

Mundu Gerra amaituta Frantzia ez zen berriz antzinako potentzia koloniala izango. Ekialde Hurbilean zeukan botere eta eragina desagertzen joan zen mundu ordena berria kontrolatuko zuten bi potentziei lekua utziz. Estatu Batuak eta Sobietar Batasuna izango ziren hemendik aurrera XX.mendearen bigarren zatian eskualdearen dinamika markatuko zutenak. Frantziaren egintzak Libanon bere aliatuen defentsan oinarrituko da aurrerantzean. Frantziaren interbentzioak ez zuen zonaldeko politikak zuzentzeko asmoa, komunitate maronitaren defentsa egitea baizik. Horrela izan zen 1975an eztanda egin zuen Libanoko Guda Zibilaren bitartean. Frantziak zonaldean presentzia mantendu nahi zuen. Horretarako mendebaldeko blokearekin batera armez eta laguntza ekonomikoz ornitu zituen milizia kristauak. Frantziaren papera gudaren bitartean ez zen soilik horretan geratu. Nazio Batuen kasko urdinen misioetan soldaduak bidali zituen horrela gudan aktore izateko eta interes maronitak defendatu ahal izateko, batez ere Falangistena, maroniten sektore estremistenak. Lehenengo interbentzioa 1978an eman zen Israeldarrek Litani operazioa bota zutenean. Kasko urdinen FPNUL¹³ misioaren hedatzea indar Israeldarren eta PAEren milizianoen arteko su etena ziurtatzeko izan zen. Bigarren interbentzioa 1982an eman zen Israelek Beirut setiatu zuenean Bakea Galilean izeneko operazioan. Oraingoan Frantziak, Estatu Batuak eta Italiarekin

¹³ UN.ORG “FPNUL: *Fuerza Provisional de las Naciones Unidas en el Líbano*”. ONU.org. <http://www.un.org/es/peacekeeping/missions/unifil/> 2018/06/18 Kontsultatua.

Indar Multinazional batzuk bidali zituen errefuxiatu palestinarren kanpalekuak babesteko. Indar Multinazional hauek kritika zaparrada batean alde egin behar izan zuten euren eraginkortasun eskasagatik. Misio internazional hauetan Frantziaren papera partzialtzat hartzen zuten askok Libanon eta gainera hildako mendebaldarrak gehiegi izan ziren iritsi frantsesarentzat.

Guda zibila amaitu zenean Frantziaren influentziak Libanon behera egin zuen. Aliatu maronitak mantentzen zituen baina Siriaren interbentzio militarra estatu Libanoarrarekin izan ahal zituen harremanak ahuldu zituen. Hala ere, kanpo politika aktibo bat mantendu zuen, Libanok Europar Batasunarekin zeukan harremanetarako zubi garrantzitsuena izaten jarraituz. Guda amaitu zenean 1990an Siriaren arerioa zen Michel Aoun jenerala Frantziako enbaxadan gotortu zen eta herri horretan asilo politikoa aurkitu zuen¹⁴. Honez gain politikari frantsesak harreman onak mantentzen zituzten elite libanoarrarekin. Honen adibide da Jacques Chirac Rafic Haririrekin mantentzen zuen adiskidetasuna. Siriak 2005erarte Libanon indar armatuak mantendu izanak garai hartan herrialdearen kontrol politikoa Damaskoren eskuetan egotea suposatu zuen, interes frantsesentzat oztopo bat suposatuz. Baina aurrerago ikusiko dugun bezala Frantziaren esku-hartzea erabakigarria izan zen Siriaren okupazioa amaitzeko, argi utziz Frantziak interes iraunkorrak dituela zonaldean. (Corm, 2006)

Baina siriar armadak alde egin zuenean Frantziak zonaldean zuen eragiteko ahalmena berreskuratu zuen, kasu askotan bitartekariaren rola hartuz. Bitartekaritza paper honetan Frantzia klabea izan zen 2006an Israel eta Hezbollahren artean eman zen 33eguneko gudan su-eten bat lortzeko. 2007an gudak suntsitutako azpiegiturak berreraikitzeke finantziazioa lortzeko Pariseko Dohaintza Emaileen Konferentzia Internazionala antolatu zuen, "Paris III" bezala ezagutzen dena. 2008an Libano eta Siriaren artean apurtuta zeuden harreman diplomatikoak berreskuratzeko Frantziak negoziaketetan parte hartu zuen, Nicolas Sarkozy presidentea medio. 2012an Guda geroztik egon den estatu buruaren lehenengoko bisita ofiziala eman zen François Hollande presidentea Beirut bisitatu zuenean. Bisita honekin bi Estatu arteko harreman diplomatikoak estutu egin ziren, izan ere Frantziak Estatu Libanoarraren defentsaren konpromisoa hartu du¹⁵. Macron administrazioarekin Frantziaren bitartekaritza Libanoko arazoetan bizia izan da ere. 2017ko azaroan Saudi Arabiak Saad Hariri Libanoko Lehen Ministroa atxiki zueneko krisia Parisen interbentzioarekin konpondu egin zen. Geroztik Frantziak Estatu libanoarrari laguntzeko bi konferentzia antolatu ditu. 2018ko maiatzean Libanoko indar armatuak indartzeko "Erroma II" konferentzian Frantziak tresneria militar frantsesa erosteko 400 milioi euroko mailegua eman zion Libanori. Hilabete gutxi geroago, apirilean, "Paris IV" dohaintza emaien konferentzia antolatu zen ekonomia Libanoarrari laguntzeko¹⁶. Ikusi dezakegu nolatan Frantziak

¹⁴ EL TIEMPO (1990). "Incierto futuro de Michel Aoun". Colombia: Archivo El tiempo, Reuter. <http://www.eltiempo.com/archivo/documento/MAM-11503>

¹⁵ FRANCE DIPLOMATIE. "Fichas de países: Francia y Libano". Diplomatie.gouv.fr <https://www.diplomatie.gouv.fr/es/fichas-de-paises/libano/francia-y-libano/2018/06/18> Kontsultatua.

¹⁶ LA VANGUARDIA (2018). "El Libano presentará proyectos por 16.000 millones en la conferencia de París". La vanguardia.com: política.

azkeneko urteetan Libanorekiko kanpo politika indartsua berreskuratu duen, hango Estatuaren indartzea helburu duelarik.

Ikusi dezakegunez Frantziaren esku-hartzeak Libanoko politika markatu egiten du. Frantziak indar kolonial moduan instituzionalizatu zuen konfesionaltasuna, honek gerora ekarri duen arazo politiko guztiekin. Botere politikoa banatzeko eredu konfesionala hartu izanak eta ez beste eredu proportzional bat, komunitateen arteko tentsioa areagotu ditu, herrialdean desegonkortasuna areagotuz. Bestalde, aipatzekoa da, Frantziaren mandatupean biltzar parlamentario bat osatu izanak herrialdea beste aukera autoritarioetatik urundu izana. Zonaldeko herrialdeak ikusita hau Libano bereizi egin du, izan ere eskualdean dagoen ordezkari sistema hau dauden erregimen askeetarikoena da. Aipatu behar da Frantziaren jarrera Libanorekiko guda zibila geroztik aldatu egin dela. 70 eta 80ko hamarkadetan lurralderako politika komunitate maronitaren defentsan oinarritzen bazuen, egun Estatua indartzearen esfortzua egiten du. Adierazgarria da Macronen gobernuarekin Frantziak esparru internazionallean ikusgaitasuna berreskuratzen ari dela eta honekin Libanorekiko kanpo-politika areagotu egin da. (García, 2015)

<http://www.lavanguardia.com/politica/20180306/441312607383/el-libano-presentara-proyectos-por-16000-millones-en-la-conferencia-de-paris.html>
2018/06/15 Kontsultatua.

3.2. Libano Guda Hotzaren testuinguruan.

1952An Libano independentearen lehenengoko krisi politikoa eman zen. Urte horretan Errepublikako Presidentea zen Béchara el-Khoury dimititzera behartuta ikusi zen elite politiko baten koalizioaren presioagatik. Presidente honek eskualdeko politika internazionalen ez lerrokatzearen aldekoa zen. 1943ko Paktu Nazionalaren espirtua aldarrikatzen zuen blokeen jokoetan ez sartzeko. Dimititu behar izan zuenean Estatu Batuak eta Britainia Handiak begi onez ikusi zuten el-Khouryren irteera, honen gainean eragin gutxi baitzuten. Krisi honen bigarren maila batean eskualdeko egoera nabaritu ahal zen. Estatu Batuak eta Britainia Handiak Sobietar Batasunaren euskarri politikaren logikan mugimenduak egiten ari ziren. Bloke mendebaldarra zonaldeko herrialde arabiarrek presionatzen ari zen hauek aliantza militar batean parte hartzeko. Aldi berean sobietarrek eskualdean zeukaten eragina handitzen ari ziren batez ere Egipton eta Sirian.

Krisi honetatik ateratzeko trantsiziozko gobernu bat eratu zen eta hauteskundeak ospatu ziren. Hauetan Camille Chamoun izeneko abokatu maronita batek irabazi zuen presidentetza. Chamoun ez zen familia politiko tradizionalerako korrante batetik ateratzen. Bera anglofilo bezala definitzen zen eta eredu ingeleseko panarabismo bat defendatzen zuen. Horrela Jordanian eta Iraken agintzen zuten monarkia hashimien laguna egin zen, Erresuma Batuen kontrolpean zeudenak. 1954Ean “Bagdadeko paktuan”¹⁷ arrakastarik gabe Libano lerrokatzen saiatu zen. 1957An Libano Eisenhower doktrinara atxikiko zela ziurtatu zuen. Estatu Batuen alde zuten jarrera Chamounen kontra jarri zituen gizarte libanoarraren sektore ugari. Libanon talde politikoen arteko tentsioa 56an areagotu zen. Urte horretan Britainia Handia eta Egiptoren artean Sinaiko guda eman zen Suezeko kanala kontrolatzeko lehia zela. Guda hasi zenean komunitate musulmanak Erresuma Batuekin eta Frantziarekin harreman diplomatikoak etetea aldarrikatu zuen hauek Egipto erasotzeagatik, baina Chamounek ez zuen hori onartu. Honek 1956 eta 1958aren artean 43ko paktu nazionala modu bilateralez apurtzera eraman zuen. Kristauak mendebaldearen alde kokatu ziren eta musulmanak Nasserrek defendatzen zituen jarrera panarabisten alde. Nasserrek Sobietar Batasunaren babesa zeukan eta Estatu Batuak honen beldur zen. 1958An Siria eta Egiptoren artean Arabiar Errepublika Batua sortu zuten¹⁸. Errepublika hau herrialde arabiarrek sistema politiko bakar batean bateratzeko desira zeukan. Libanon musulmanak honetan sartzeko asmoa zeukaten, baina noski Chamoun presidentea eta mendebaldearekin identifikatzen zirenak ez ziren horretarako prest egon.

¹⁷ Begiratu glosarioan: “Bagdadeko Paktua”

¹⁸ Begiratu glosarioan: “Arabiar Errepublika Batua”

Azkenean 1958an matxinada armatu bat eman zen Kamal Yumblatt buruzagi drusoak gidatuta. Honetan nasserismoagatik miresmena zeukaten komunitate suniaren lider politiko askok parte hartu zuten ere. Momentu honetan eratutako krisia kristauen eta musulmanen arteko gatazka baten antza hartu zuen, nahiz eta kristau batzuk musulmanen tesiekin egon. Gizarte libanoarrak inperialismoaren kutsua ikusten zuen jarrera ipar-amerikarrean. Kontuan izan behar da urte horietan Britania Handia eta Egiptoren artean Sinaiko guda eman zela eta Iraken monarkia jauzi egin zela. Beraz antiinperialismoaren hotsak eskualdea zeharkatzen zuen. Iraken iraultzan egon ziren mendebaldarren kontrako sarraskiak ikusita Camille Chamounek Estatu Batuen interbentzioa eskatu zuen. Argi ikusi ahal da hemen, testuan zehar azaldu den bezala, Libanoko politikariek barnean boterea indartu nahi dutenean kanpo laguntza bilatzen dutela. Indar amerikarrak Beiruten lehorreratu ziren eta azpiegitura estrategikoak ziurtatuz egoera baretu zuten. Estatu Batuarren interbentzioak lau hilabetez iraun zuen 58ko uztaila eta urriaren artean. Guda zibil txiki honek 500 hildako eta 2500 zauritu utzi zituen. Estatu Batuek Chamoun presidentearen dimisioa hartzea behartu zuten horrela komunitateen arteko bakea lortu ahal izateko. (Velasco de Castro, 2008)

58ko krisi honetatik ateratzeko Libanoko legebiltzarrak presidente berri bat aukeratu zuen. Fuad Shehab jenerala izango zen bake instituzionala herrialdera bueltatzeko arduraduna. Bere aginduak sei urteren zehar iraun zuen eta bere helburu nagusia Estatuaren organoak indartzea izan zen. Jeneralak Estatu moderno, zentralizatu eta indartsu baten egitura sortu zuen. Batez ere Estatuaren segurtasun gorpuak indartu zituen horrela estremismo konfesionala eta atzerriko eraginak ekiditeko. Kanpo politikan oreka bat lortu zuen nasserismoarekin eta mendebaldearekin harreman onak izanik. Barne politikan komunitateen arteko baretze bat lortu zuen eta ekonomikoki herrialdearen hazkunde bat eman zen. Hala ere elite politiko eta ekonomikoekin harreman liskartsua izan zuen, Shehab zerga politika zurrun baten aldekoa zelako. Honez gain 1961an Siriarren Alderdi Popularraren aldeko ofizial militar batzuk estatu kolpe baten saiakera egin zuten baina Presidentearen alde zegoen armadak hau saihestu zuen. Azkenean 1964an parlamentuko gehiengoan izan arren, berrautatzeari uko egin zion. Fuad Shehaben gobernuaz geroztik Estatu Libanoarrak librekanbismora bira egin zuen egitura publikoaren desintegrazio batean. (Corm, 2006)

60ko hamarkadaren bigarren zatian desegonkortasun internazionala behera joan zen arren, Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren arteko distentsio garaia izan baitzen, Ekialde Hurbilean egoera larria izaten jarraitzen zuen. Moskuk PAEren gain eta mugimendu nazionalista arabiarren gain eragin handia izaten jarraitu zuen, eta hauek indartsu sentitzen ziren honen laguntzarekin. 1967An Egipto, Siria, Jordania eta Irakengatik osatutako herrialde arabiarren koalizio bat Israeleko Estatuarekin gudan sartu zen herrialde hebrearra Foku Operazioan Egipto erasotu zuenean. Gudan israeldarrak garaile atera ziren eta ondorioz errefuxiatu palestinarrek Egipto, Jordania eta Libanon gotortu ziren. Momentu hartan talde armatu palestinarren igoera bat eman zen, hauek Libano eta Jordanian antolatu ziren eta hortik Israelera erasoak bota ahal zituzten. 1969An Libanon Fedajinen, miliziano

palestinarrak, eta Libanoko Armadaren arteko liskarrak eman ziren herrialdearen hegoaldean. Momentu hartan Libanoko gizarteak talde palestinarren alde kokatu ziren eta Rachid Karamé lehen ministroak dimititu egin behar izan zuen Emile Bustany armadaren burua zenaren mesedetan. Honek “1969ko Kairoko Akordioak”¹⁹ sinatu zituen Gamal Abdel Nasserren babesarekin. Akordio hauen arabera talde palestinar armatuak Libanoko hegoaldeko mugan aske mugitu ahal zitezkeen, palestinarren errefuxiatu kanpalekuak kontrola zezaketen eta erresistentzia palestinarrek hiritartasun libanoarra eskuratu zezaketen. Askorentzat Kairoko akordio hauek Estatu libanoarraren desintegrazioaren hasiera suposatu zuten. 1970An Jordaniako Hussein erregeak PAEko milizianoak bere mugetatik bota zituen, hauek Libanon gotortuz. 73An Yom Kippureko guda amaitu zenean, PAEren ekintzarako gaitasuna murriztua ikusi zen. Estatu arabiarrek bakea gordetzea erabaki zuten erakunde palestinarra euren mugetatik aldentuz. Beraz erresistentzia talde palestinarrek Libanoko hegoaldean masiboki bildu ziren Israelekin higadurazko guda bat mantentzeko. Honek Libanoko mugen barnean lehenengoko tentsioak eragin zituen kristau eta palestinarren artean. Kristauak errefuxiatu palestinarren jarioak desoreka demografikok eragitearen beldur ziren, biztanleria sunita kristaua baino gehiago izateko arriskua baitzegoen eta honek boterearen oreka konfesionala apurtuko zuen. Bestalde Israelek palestinarren ekintzak indargabetzeko Libanon aliatuak bilatu zituen, Siriak Israelen eragina murrizteko berdina egin zuen eta SESB zein AEB euren zonaldeko aliatuak babesteko jarrera hartu zuten. Azkenean 1975ko apirilaren 13an miliziano palestinar eta falangisten arteko lehenengoko borroka eman ziren hamabost urte iraungo zuen gudari hasiera emanez. (Charaf El Dine, 1993) (Villares eta Bahamonde, 2001)

Beharbada Guda Hotzean lehiatu ziren bi kolosoen interbentzioak ez ziren erabat zuzenak izan Libanon. 1958ko Estatu Batuen interbentzio militarra salbu. Baina Libano argi mugitzen da blokeekin lerrokatze jokoaren testuinguruan. Libanoko Estatua ezin izan zen inorekin lerrokatu erabakiak hartzerakoan taldeen adostasun handiak bildu behar zirelako. Baina Libano barneko talde politikoak bai lerrokatu zirela, jada aipatutako paradiploaziaren fenomenoak erakutsiz. Zonaldean bizi izan ziren tentsioak, botere kolonialak egindako banaketetan eta bi blokeen arteko tentsioetan zeukaten eratorria. Eskualdea astindutako fenomeno politikoak Libanora heldu ziren ere. Beraz esan dezakegu Guda Hotzaren bitartean mundua desegonkortu zuten faktoreak Libanon nabaritu zirela ere. Honek barne politika baldintzatuz.

¹⁹ Begiratu glosarioan: “1969ko Kairoko akordioak”

3.3. 1975ko guda zibila, kanpo faktoreak.

Guda honetako bi kanpo aktore nagusiak Siria eta Israel izan ziren. Herrialde hauentzat Libano euren artean lehiatu zuten sari bat bihurtu zen. Estatu hauek gudan parte-hartzearen arrazoia euren interes defentsagatik izan zen soilik, interes libanoarrak edo komunitate internazionalarenak kontuan izan barik. Bestalde, mendebaldeko potentziak, Estatu Batuak bereziki interpretazio desegokien arabera hartu zituzten erabakiak, aipatutako bi aktoreen gaitasunak gutxietsiz. Kanpo esku-hartzeak gatazkaren baretze bat suposatu beharrean honen luzapenerako balio izan zuten. Izan ere material militarren ornitzea eta interbentzio militarrek gatazka kistatzera eraman zuten. Azkenean gudaren amaiera komunitate internazionalaren nekeagatik eman zen, Siria garaile bezala geratuz.

75eko apirilean lehenengoko liskar armatuak eman ziren guda zibilari hasiera emanez. Alde batean Fronte Nazionale egongo zen Falangea eta beste talde kristauak osatua. Hauen kontra Mugimendu Nazional Libanoarra borrokatuko zen, milizia musulman, nasseristak eta PAEren babesarekin. Bi egiturak interes sektario desberdinak zituzten talde anitzez osatuta zeuden, ohikoak izanda bloke barruko taldeen artean borrokak ematea. Mugimendu Nazional Libanoarrak guda irabaztetik gertu egon zen 1976an eta horrek Jerusalem eta Damaskon ikara sortu zuen. Batetik Israelek ez zuen nahi Libanorekin zeukan muga PAEren eskuetan jaustea, bere barne segurtasuna mehatxatu zezakeelako. Hau ekiditeko Israeldarrek Libanoko hegoaldeko milizia kristauak antolatzen eta armatzen hasi zen. Bestetik Siriak, MNLren garaipen bat saihestu nahi zuen Libanon kontrolatu ezin izango zuen gobernu bat osatu ahal zelako. Batez ere kontuan izanik PAEren buruzagia zen Jassir Arafaten eta Siriako presidentea zen Hafez al-Asaden arteko harremanak txarrak zirela. Komunitate internazionalak begi honez ikusi zuen 76aren bitartean Siriak eta Israelek Libanon egindako mugimenduak. Alde batetik 1976ko amaierara egoera apur bat baretua zegoen eta parlamenturako hauteskundeak egin ahal izan ziren. Huetan diputatuen gehiengoa zuen Raymond Eddé Siriak babesten zuen Élias Sarkis hautagaiagatik garaitua izan zen presio, mehatxu eta ustelkeria jokoaren bitartez. Estatu Batuek Siriak presidente libanoarra aukeratzea positibotzat ikusi zuten. Injerentzia politiko honen ostean Siriak, Arabiar Ligaren onespenearekin, siriar soldaduz osaturiko kasko berdeak bidali zituen Estatuaren Armadaren porrota saihesteko. Egoera baretuta ere, Siriak tropak Libanon mantendu zituen bere interesak hobeto babesteko. Bestetik, Siriaren interbentzio militarra ikusita Estatu Batuek Siria eta Israelen arteko lerro-gorri bat proposatu zuen bi herrialdeen armadak Libanon pasatu ezin zezaketan mugak ezarriz. Honek Libanon desegonkortasuna areagotu zuen, izan ere hegoaldean Israelen aldekoen eta palestinarren milizien arteko borrokak biziagotu ziren. Lerro-gorri hauen eraketarekin sarraski etniko ugari eman ziren muga barneetan gehiengo demografikoak lortzeko. Hauek izan ziren mendebaldeko potentzien ongi-ikusiarekin gudan eman ziren lehenengoko kanpo esku-hartzeak.²⁰

²⁰ Libanoko gudako aurkarietan sakontzeko 1976ko El Paisen kazetaritza artikulua: DEL

1978 urtean Israelek Litani operazioa bota zuen Libanoko hegoaldea kontrolatzeko. Baina Israelen eta Egiptoren arteko "Camp David"ko bake prozesua ez kaltetzeko Jimmy Carter presidente ipar-amerikarrak Nazio Batuen bitartez bake misio bat sustatu zuen. Hau FPNUL deituko zen eta kasko urdin europarrez, frantsesak batez ere, osatuta egongo zen. 1978ko Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 425 eta 426²¹ erresoluzioen bitartez indar israeldar eta palestinarren artean bake lerro bat egiteko misioa baimendu zen. Bake misio honek ez zuen arrakastarik izan, palestinarrek Israel erasotzeko gaitasuna mantendu nahi zutelako eta Israelek segurtasun eremu bat eratu nahi zuelako Libanoren hegoaldean. Hala ere Nazio Batuen bakerako misioa gaur egun arte mantendu da Israelen eta Libanoren arteko gatazkak baretzeko. Bitartean Siriar armada falangista kristauen aurka borrokatzen ari zen Beirut inguruan, azkeneko hauek mendebaldeko herrialdeek lagunduak. Horrela 1982 urtea aldera guda bigarren fase batean sartuko zen. Mendebaldeko potentziek Israelen eskuetan utzi zuten euren interesen gestioa Libanoko krisian. Israelek, kristauen defentsa aldarrikatu zuen. Horretarako Libanoko inbasio masibo bat antolatzea izan zen Jerusalem erabakia. Beirutera heltzeko helburuarekin israeldarrek "Bakea Galilean" izeneko operazio militarra bota zuten. Inbasio honekin lortu nahi zutena kristau erradikalen Falangeko presidente bat izendatzea izan zen. Bakea Galilean misioaren bitartean zibil palestinarren sarraskiak gertatzeko arriskua zegoen. Hori ekiditeko Indar Multinazional batzuk antolatu ziren. Indar hauek soldadu estatubatuar, frantses eta italiarrez osatuta zeuden. Israelek bere inbasioarekin euren aldekoa zen Bashir Gemayel falangista presidente aukeratua izatea lortu zuten. Gemayel aukeratua izan zenean Indar Multinazionalak alde egin zuten, baina denbora gutxira presidentea atentatu batean hil zuten Libanoko egoera gordinduz. Presidentearen hilketak mendekatzeko Sabra eta Xatilako sarraskiak eman ziren Israelek babesten zituen milizia falangisten eskuetan. Momentu horretan Indar Multinazionalak Libanora bueltatu ziren Amin Gemayel presidentearen kargua hartzen zuen bitartean. Baina hemendik aurrera IMN-en egoera ez zen erraza izango. Siriak lagundutako oposizioak Gemayelen boterea murrizteko IMN-en kontra atentatuen bidez higadurazko guda bat planteatu zuen eta azkenean Libanotik ateratzera behartuta ikusi ziren 1983an. (Lion Bustillo, 2012)

Israelek bake tratatu bat sinatu zuen Amin Gemayelen gobernuarekin, baina gobernu libanoarra bake tratatua sustengatzeko ahul egia zen. Siriaren erantzuna oposizioko miliziak gehiago finantzatzea izan zen, hauen nagusitasuna argi geratuz. Israelek 1984an Estatu libanoarrarekin adostutako bakeaz arnegatu zuen eta 1985ean bere guda hasierako posizioetara bueltatu zen Libanoko hegoaldean. Hegoaldean PAEren indarra ia desagertua zegoen, baina aktore internazional berri batek finantzatuko taldeak agertu ziren. Iranek,

PINO, Domingo (1976). "¿Quiénes combaten en el Líbano?" El País.
https://elpais.com/diario/1976/06/15/internacional/203637611_850215.html 2018/06/17
Kontsultatua.

²¹ NAZIO BATUAK, Segurtasun Kontseilua (1978ko Martxoaren 19a) "La situación en el Oriente Medio". Nazio Batuek, 225 eta 226 erresoluzioak.
[http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/426%20\(1978\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/426%20(1978)) 2018/06/18
Kontsultatua.

Amal mugimendua eta Hezbollah armatu zituen Libanoko hegoaldean gehiengo demografiko xiita zegoela aprobetxatuz. Iranek Libanoko guda erabili zuen sionismoaren kontrako gudaren izenean eskualdean zeukan irudia garbitzeko. Izan ere, Errepublika Islamikoak jasaten zuen isolamendu internazionaletik atera nahi zuen. Bestalde 85tik aurrera Siriak guda irabaziko zuela ikusten hasi zen. Bera zen irabazteko gaitasuna zeukan bakarra eta pixkanaka Damaskok gidatutako bake bat prestatzen joan zen.

Gudarekin amaituko zuten faktore internazionalen pilatze bat eman zen 1989an. Guda hotzaren amaierarekin jada Estatu Batuak ez ziren beldur Sobietar Batasunak Ekialde Hurbilean izan zezakeen eraginaz. Gorbaxovek ipar-amerikarrekin harreman hobekak izateko eskualdeko politikatik ateratzea erabaki zuen. Hau ikusita Bush administrazioak Siriaren gain zeukan mesfidantza baretu egin zuen. Saudi Arabiak begi honez ikusi zuen Siriaren garaipena, Libanon egonkortasuna bilatzen zuen eta berreraikuntza prozesuan parte hartzeko gogotsu zegoen. Siriaren garaipenaren aurka zeuden aktoreak Israel, Irak eta PAE izan ziren. Baina 89an aktore hauek beste arazo batzuetan murgilduta zeuden. Israelen eta PAEren artean Lehenengo Intifada ematen ari zen eta Irakek Kuwait inbaditu zuen. Beraz aktore hauek ezin izan zuten Libanoko gudan arreta jarri eta Siriari bakea gidatzeko aukera eman zioten. Horrela heldu ziren Ta'ifeko akordioak, nahiz eta milizia kristau batzuek Ta'ifen ez aurkeztu eta Michel Aoun jeneralak gudarekin jarraitu. Siriaren arerioa zen Aoun, Libanoren armadaren zati bat kontrolatzen zuen, baina kanpo laguntzarik ez izateak bere asmoekin amaitu zuen. 1990an Siriak Aounen jarraitzaileak militarki garaitu eta honen erbesteratzearekin Libanoko guda zibila amaitu egin zen. (Corm, 2006) (Lion Bustillo, 2012)

Libanoko gudaren hasieratik ikus daiteke kanpo faktoreen eragina. Mediterraneoko herrialdeak jasotako errefuxiatu palestinarren jarria barne desegonkortasuna eragin zuen. Azaldu bezala liskarrak kristauen eta palestinarren artean hasi ziren, lehenengoak euren botere kuota galtzearen beldur zirelako. Gudaren zehar argiago ikus daitezke kanpo esku-hartzeak. Siria eta Israelekin hasita, Frantzia eta Estatu Batuekin jarraituta, Nazio Batuetara heldu arte. Guztiak zer esan izan zuten gudan. Begirada atzera botata esan daiteke guda hau ez zela inoiz ere existituko ez balira egon aipatutako kanpo faktoreak eta barne gatazka bat egotekotan, inoiz ez zen horrenbeste luzatuko horiek gabe. Kanpo injerentziak erabakigarriak izan ziren Libanoko guda zibila 15 urteren bitartean luzatu ahal izateko. Aipatzekoa da Libano barneko taldeak kanpo laguntza bilatu zutela gudan zehar, baina kanpo aktoreak euren nahiera aritu ahal izan ziren. Kanpo aktoreak Libanon zeukaten indarra guda amaigabea bihurtzeko erabili zuten. Beraz gudaren amaiera ezin zen Libanoarren ekimenez bukatu, euren zoria beste esku batzuetan baitzegoen. Azkenik horrela gertatu zen, Siriak Libanoarra zen bakea inposatu zuen eta horrekin okupazio garaia ireki zen.

3.4. Siriar okupazioa

Ta'ifeko akordioek gudaren amaiera adierazi zuten eta Siriaren hegemonia erakusten zuten ere. Siriar armadak 40.000 soldadu mantenduko zituen okupazioaren lehenengo urteetan. Presentzia militarraz gain, Libanoko barne politikan eragiteko ahalmena izango zuen. Okupazio urteetan Estatuko kargu altuak Siriaren oniritzia behar izan zuten, horregatik oso ohikoa izan ziren politikari Libanoarrak Damaskora kontsultetara joatea. Bestalde, Siriaren aurkako oposizio mugimenduak isiltzeko polizia politiko bat antolatu zen. Gerora espioitza, tortura eta bortxaketak egitea leporatu zaie Siriaren polizia sekretu honi. Baina 1989an Siriak guda gelditzea lortu zuen, honekin Libanon egonkortasuna eta segurtasuna ezarriz. Ta'ifeko akordioak sinatuta René Moawad presidente berria aukeratu ahal izan zen azaroaren 5ean. Ez zuen karguan asko iraun, azaroaren 22an atentatu batean hil baitzen. Diputatuek presidente berri bat aukeratu zuten, Élias Hraoui, “batasun nazionaleko” gobernu bat osatuko zuena Salam el-Hoss lehen ministroarekin lehenik eta Omar Karamérekin geroago. Siriar okupazioarekin 1990tik aurrera segurtasun osoa lortu zen, Aoun jenerala garaituta, hilketa politikoak eten egin ziren Libanoko berreraikuntza prozesuari bidea emanez.

Karaméren gobernuak iraun zuen bi urteen bitartean, baketze prozesua eman zen sistema politikoa berriz martxan jartzen saiatuz. Ta'ifeko akordioak ezarritako arau berriekin egin zen hau. Gobernu honek guda osteko momentu zail askori aurre egin behar izan zion bake eta bizikidetzak komunitarioa lortu ahal izateko. Azkenik 1992an politika libanoarra norabidez aldatuko zuen gertakaria eman zen. Élias Hraoui presidenteak Rafic Hariri lehen ministro bezala izendatu zuen. Momentu hartan Hariri oso ezaguna zen bai Libanon zein mundu osoan, munduko enpresari aberatsenatariko bat izateagatik. Libanon ospetsua zen ematen zituen laguntza eta faboreengatik. Zeukan pertsona arrakastatsuen irudia eta askok zor zizkioten faboreak Libanoko salbatzaile berria bezala aurkeztera eraman zuten, honekin boterera igoz. Konfesio guztietako jendea begi honez ikusi zuen Haririk lehen ministroaren kargua hartu izana, beragan herrialdea berreraikituko zuen pertsona arrakastatsua ikusten baitzuten. Haririren izendatzea Libanon interesak zituzten potentzia guztiei gustatu zitzairen. Lehen ministro berriak Siriaren oniritzia zeukan, benetan garrantzitsua parlamentuaren laguntza lortu ahal izateko, baina Saudi Arabia eta Frantzia ere pozik zeuden, Haririk harreman onak mantentzen baitzuten herrialde haueko elite ekonomikoekin. Bere agintaldian Libanoko berreraikuntza prozesua gidatu zen, beti klabe neoliberaletan, Estatu Minimoaren atalean aztertu dugun bezala. Haririrekin ustelkeria politikoak gora egin zuten eta hiritarren bizi egoerak txarrera egin zuten. Herrialdea krisi ekonomiko amaigabe batean sartu zen Haririren garaian hartutako zor itzelengatik. Baina hala ere honen boterea erraldoia zen, finantzen mundua eta bankuek sustengatzen zutelako, izan ere gobernu honek mendebaldearekin harreman ekonomikoak sustatzen zituen. Honez gain, lehen ministroak, komunikabideen kontrol osoa zeukan bere aginduan ia errege absolutu baten botereak emanez. Horrela Hraoui eta Hariri binomioa sendo mantendu zuten

boterea 1998ra arte. Beti Siriaren onespenezkin Libano berriaren berreraikuntza gidatu zuten.

1998an Émile Lahoud generala presidentziara heldu zen parlamentuaren babesa lortzean. Lahoud eta Haririk ez zuten oso harreman ona mantentzen, beste gauza askoren artean bigarrena Hezbollahen arerio sutsua zelako, presidente berria hauen laguntza jasotzen zuen bitartean. Siriak Libanoko politikan aldaketa bat bilatzen zuen, horretarako presidente eta gobernu berri baten osaketa sustatu zituen. Lahouden asmoa Estatuaren arazo ekonomikoak gainditzea, ustelkeria ezabatzea eta lehen ministroaren boterea murriztea zen, horretarako lehen ministro berri bat izendatu zuen. Hau jada karguan egondako Salim el-Hoss izan zen. Lahouden eta el-Hossen arteko harremana oso ona izan zen iraun zuen bitartean, presidenteak lehen ministroaren eskuetan uzten zituen bere funtzio ugari. Horrela Estatuaren gestio egokia lortu zuten, Haririrekin alderatuta handikeriaz bustitako politikak alde batera utziz. El-Hossen aginduan herrialdea ekonomikoki onbideratzeko politikak hartu ziren baina emandako gertakaririk garrantzitsuena Israelek bere armada Libanoko hegoaldetik atera izana izan zen. 1999an Ehud Barak laborista Israeleko lehen ministro izatera heldu zen. Honek Israelgo armada Libanoko hegoaldetik ateratzearen promesa egin zuen eta 2000an hala izan zen. El-Hossen gobernuak Hezbollahri israeldarrek okupatutako lurraldeak berreskuratzeko baimena eman zion. Hau oso kritikatu izan zen batez ere Haririk kontrolatzen zituen komunikabideetatik eta bestalde talde kristauen aldetik. Lurralde horietan bizi ziren komunitate kristauen eta Hezbollahen arteko liskar berriak egotearen beldurra zegoen. Baina gobernuaren eta milizia xiaren kudeaketa ona izan zen eta ez ziren liskar berriak eman.

2000an egoeraren aldaketa berri bat eman zen. Urte horretan Siriako presidentea zen Hafiz el-Asad hil egin zen, honek Siriak Libanorako zeukan politika baretzea egin zuen. Gainera legebiltzarrerako hauteskunde berriak egon ziren non Haririren aldekoek gehiengoa lortu zuten lehen ministroaren aldaketa emanez. Arestian bezala Lahoud presidentearen eta Hariri lehen ministroaren arteko harremanak kaskarrak izaten jarraitu ziren. Barne politikan Lahoudek bere botereen bitartez Haririrenak mugatu zituen. Baina kanpo politikan Haririk bere enpresari aberatsaren baliabideak erabiltzen zituen beste herrialdeetako Estatu Buruak bisitatzeko. Horrela Haririk lehenago zuen Estatu gizonaren papera berreskuratu zuen. Bestalde lehenago aplikatutako politika neoliberalak berreskuratu zituen gobernu berriak. 2000. urtetik aurrera Siriar presentzia ahulduz joan zen. Damasko jada ez zegoen Libanoko barne politikaz kezkatuta eta alde horretatik bere injerentzia politikoak behera egin zuten. Honen adibide da soldadu zenbakia 40.000tik 14.000 murriztu izana 2000 eta 2004 urteen artean. Gainera Siriar presentziaren aurkako ahotsak igo egin ziren. Sektore kristauetatik eta drusoetatik, Walid Youmblat politikariarekin burura, Siriar okupazioaren aurkako protestak antolatzen hasi ziren, batez ere 2000ko hauteskundeetatik aurrera. Egoera hau 2004ean eztanda egin zuen Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 1559 erresoluzioa²² onartu zuenean.

²² NAZIO BATUAK, Segurtasun Kontseilua (2004ko Irailaren 2a) "La situación en el Oriente Medio". Nazio Batuak, 1559 erresoluzioa.
http://dag.un.org/bitstream/handle/11176/19550/S_PRST_2006_43-

Segurtasun kontseiluaren 1559 erresoluzioa Frantziaren ekimenarekin aurrera atera zen. Erresoluzio honetan Lahoud presidentearen aginduaren luzatze bat ukatu eta Siriar armada Libanotik alde egitea eskatu egiten zen. Aipatu behar da erresoluzio honen aurretik komunitate internazionalak ez zituela trabarik jarri Siriaren Libanoko okupazioari. Baina 2004ean Frantziak Libanoren gain zeukan eragina handitzeko aukera ikusi zuen. Kontuan izan behar da Hariri lehen ministroa Frantziaren begikoa zela. Bere aliatuaren defentsan Frantzia, Estatu Batuen laguntzarekin, Lahoud presidentearen eta Siriaren botereak mugatzeko aukera aurkitu zuen. Hala ere Lahouden agintea hiru urtez luzatua izan zen parlamentuaren bozkarekin, ironikoki Haririren talde parlamentarioaren bozekin. Izan ere, Haririk Siriaren babesa izaten jarraitu behar zuen eta horretarako presidentearen alde egin behar zuen. 1559 erresoluzioak krisi politiko bat ireki zuen, Siriaren aurkako hotzak nabargarriak bihurtu zirelako Libanoko antzetzoki politikoan. Haririk batasun nazionalako gobernu bat sortzen saiatu zen Siriaren aldeko alderdiekin, baina ez zuen lortu eta dimititzera behartuta ikusi zen. Honen ostean lehen ministro berria aukeratu zen 2004aren urrian, Siriaren gustukoagoa zen Omar Karamé. Karaméren aurkako oposizio mediatikoa kargua hartu bezain laster hasi zen, kritikak Siriaren aurkako oposiziotik eta Haririren jarraitzaileetatik heldu zitzaion. 2005a izugarritzko tentsio politikoarekin hasi zen Libanon.

2005eko otsailaren 14ean politika Libanoarra astindu zuen gertakaria eman zen. Rafic Hariri atentatu batean eraila izan zen. Libanoko errege absolutu bezala aritu zen gizona eztanda erraldoi baten erruz hil zen Beiruteko kaleetan. Gertakari honek manifestazio eta mobilizazio masiboak eragin zituen Zedroen iraultza bezala ezagututako protestetan. Aurretik azaldu bezala Haririren aldekoek Siriar espioitza zerbitzuei atxikitu zioten atentatua egin izana. Honek talde askok Siriar armadaren irteera eskatuz mobilizatzea eragin zuen etaaldi berean Siriaren alde agertzen ziren kontramanoifestazioak egon ziren. Komunitate internazionalak Frantzia, Estatu Batuak eta Israelekin burura Siriar okupazioaren aurka presionatu zuten Haririren hilketaren ostean. Horrenbestekoa izan zen komunitate internazionaletik eta Nazio Batuetatik egindako presioa Siriak zituen soldaduak erretiratu zituela. Siriak gogoan zeukan Iraken inbasioarekin gertatutakoa eta nahiago izan zuen atzera pauso bat eman. Protektoratu Siriarren amaierarekin Libano eskualdearen joko geopolitikoetan sartu zen berriz, barne desegonkortasuna areagotuko zuen garai bat irekiz. (Corm, 2006)

Siriak 29 urtez okupatu zuen Libano. 1976An gudan interbenitu zuenetik Siriar armada Libano Siriaren beste probintzia bat bezala ikusi zuen. Hasiera batean Siriak gudaren amaiera ekidin nahi zuen Mugimendu Nazional Libanoarraren garaipen militar baten beldur zelako. MNL eta berarekin borrokatzen zuen PAEren garaipena Siriak Libanoren gain zeukan eragiteko ahalmena txikituko zuen, nahiz eta hauek Siriaren aliatuak izan. Siriaren dinamika gudaren bitartean edonoren garaipena eragozteko izan zen modu honetan gudaren iraupena luzatuz. Guda aurrera egin ahala Siria eta bere

aliatuak hegemonia lortzen joan ziren, azkenean bakea lortzeko erabakigarriak izanik. Bakea inposatu zuten, gatazkari amaiera jarriz baina Libanoko jokaleku politikoa bere nahiera moldatuz. Ta'ifen egindako akordioak Damasko mesedetu zuten, honekin Libanoren gain zeukan eragina handitu zuelako. Baina baita aipatu behar da Ta'ifeko akordioei esker Komunitateen arteko oreka berretsi zela, lehenago kristauak musulmanen gain nagusitasun politikoa baitzeukaten gizartearen gehiengoak izan barik. Horrez gain erregimen demokratikoa abian jartzeko gailua izan zen Ta'if, nahiz eta demokrazia inperfektu batez aritu behar garen. Ta'ifekin bakea lortu zen baina gudaren memoria desagertu egin zen eta horretan gertatutako krimenak epaitu gabe geratu ziren. Guda ostean okupazioak iraun zuen 15 urteetan presidentek eta gobernuak guztiz baldintzatu zituen Siriak, baina gizarteak askatasun eta segurtasuna berreskuratu ahal izan zuten. Hala ere urte horien bitartean erabakigarriagoak izan ziren Haririren aginteak Siriar okupazioa baino. Izan ere Hariri izan zen Libanoko barne politika goitik behera maneatuko zuena. Hariri hil zenean eta Siria Libanotik irten zenean Siriaren eragina behera egin zuen, baina eragiteko ahalmen handia mantenduko zuen horrez gain. Maiatzaren 8ko eta Maiatzaren 14ko koalizioen sorrerarekin Libanoko politika polarizatu egin zen Siriaren aldeko eta kontrakoaren artean. Horren bestekoa da Siriaren eragina Libanon egun oraindik Libanoko eztabaida politikoetan maiz agertzen dela. Honen adibide da Siriako guda zibilaren inguruan “disoziazioaren” eztabaida eta Hezbollahren parte hartzea. Beraz Siriar okupazioaren garaia aztertzerakoan, kontuan izan behar dugu alde batetik beren interesen defentsan egin zituzten gehiegikeriak, baina aintzat hartu behar dira ere Libanoren berreraikuntzan eta bideragarritasunean egindako neurriak.

Siriar okupazioa amaitu zenean Libano Ekialde Hurbileko geopolitikak eskaintzen dituen onura eta arriskuen jokora sartu zen. Siriaren aldekoa zen Lahoud presidentearen aginduaren bitartean lortu zuen Libanok Siriarekiko independentzia, lehen ministroa martxoaren 14ko blokearen liderra zen Fouad Siniora izango zen 2009rarte. Okupazioaren amaieraren lehenengoko ondorioetako bat 2006an gertatu zen “33 egunen guda” izango zen. Israelen eta Hezbollahren artean eman zen gatazka hau. Israelen argudioa talde xiitaren erasoak gelditzeko operazioa zela izan zen, baina ziurrenik Siriar armada herrialdean ez zegoela ikusita eraso botatzeko harro sentitu ziren. Guda labur horrek Libanoko azpiegitura ugari suntsitu zituen, herrialdea garatzeko aukerak murriztuz. Guda hori Nazio Batuen esku-hartzearekin amaitu zen, zonaldean zeuden kasko urdinen eskumenak handitu zituenean 1701 erresoluzioaren²³ bitartez. Lahoud presidentea krisi politiko baten erruz jauzi zen 2007. Honen geroztik batasun nazionaleko gobernuak osatzen saiatu dira Libanon. Talde politiko guztien arteko akordioak behar izan dira hautagaiak aukeratu ahal izateko eta honen emaitza hautagai independente ugari egotea izan da. Blokeo politikoa iraunkorra izan da Libanon inoren gehiengo argia akordioak zaildu egin dituelako. Lan honen hasieran aipatu bezala 2009tik 2018ra ez ziren hauteskunde orokorrik antolatu, taldeak ez baitziren ados jarri. 2018ko

²³ NAZIO BATUAK, Segurtasun Kontseilua (2006ko Abuztuaren 11a) “La situación en el Oriente Medio”. Nazio Batuak, 1701 erresoluzioa.
http://www.europarl.europa.eu/meetdocs/2004_2009/documents/dv/120/120906/120906res1701_es.pdf 2018/07/19 kontsultatua.

maiatzean izandako hauteskundeetan Hezbollahen eta bere aliatuen Martxoaren 8ko blokeak hauteskundeak irabazi zituzten, baina lehen ministroa aurkakoa izaten jarraitzen du. Siriar okupazioa amaitu zenetik jada ez dira Israel eta Siria mediterraneoko herrialde txiki honen gain gehien eragiten dutenak. Egun Libano, Saudi Arabia eta Iranen artean jokatzeko duten xake partidaren beste pieza bat bihurtu da, bere benetako independentzia noiz helduko zain. (Cabello Rodriguez, 2016) (Lion Bustillo, 2014)

4. ONDORIOAK

Lan honen sarreran azaldu bezala, Libanoko desegonkortasuna nondik datorren identifikatu egingo dut. Barne berezitasun politikoak zein garai historikotatik datozen identifikatu ahal dugu jada egin dudan berrikuste historikoarekin. Bestalde garai desegonkor eta korapilatsuak egon direnean barne eta kanpo faktoreak balantza batean jarri ahal izango ditugu.

Lehenik Libanoko arazo gehienen azpian aurkitu dezakegun faktore komun batez hitz egin beharra dago. Hau desegonkortasunaren atzean aurkitu dezakegu egoera desberdinetan miatzean. Komunitarismoa da, edo hobe esanda, sistema politikoa komunitarismoan oinarritzea, hasiera batean arruntak diren egoerak arriskutsu bihurtzen dituena. Ikusi dugun bezala komunitarismoa betidanik existitu da Libanon. Otomandar Inperioarekin *millet* komunitarioak eratu ziren Libanon, legedi propioa emanda komunitate bakoitzari. Esparru legala eta erlijiosoa komunitateen menpe zeuden gauzak ziren. Baina botere politikoa Inperioaren administrazioaren eskuetan zegoen. Mandatu Frantsesean biltzar demokratiko bat osatu nahi izan zen eta potentzia kolonialaren erabakia boterea kuota komunitarioen arabera banatzea izan zen. Komunitarismoaren instituzionalizazioa aurki dezakegu gerora Libanok bizi izan dituen arazo gehienen atzean. Sistema komunitarioa aukeratu izana, eta ez sistema proportzionala, gaitz bat izan da Libanoko egonkortasun politikoa lortzeko.

Elite politiko Libanoarrek beti begiratu dute kanpora, laguntza eskatzeko, zein erruak leporatzeko. Baina inoiz ez da sistema komunitarioa zalantzan jarri. Ezta komunitate eta indar politikoeek kanpo potentziei dioten mirabekeria. Sistema komunitarioa demokrazia konsoziatiboaren paradigmatzat jarri da, baina horrek jasan dituen desbideratzeak amaigabeak dira. Sistema komunitarioak gizartearen gehiengoa kontrolatzen duten elite politiko, ekonomiko eta erlijiosoak sortu ditu. Horiek dira politika libanoarra euren interes propioak mesedetzeko antzetzoki politiko bezala erabiltzen dutenak. Elite, *zu'ama*, hauek dira euren komunitateen gaineko kontrola gauzatzen dutenak. Sistema komunitarioa erregimen ustel eta klientelar batean eraldatu dutenak. Politikariak euren etekin pertsonala kaltetuko duen edozein neurri ekiditeko prest daude, eta horretan Estatuaren indartze bat ekiditen dute. *Zu'ama* hauek ez daude interesatuta boterea sistema proportzional baten arabera banatzeko eta are gutxiago komunitateek daukaten boterea Estatu bateratu baten eskuetan uzteko. Honen saiakera egin duen pertsona bakoitza arin baztertua izan da botere postuetatik, bere momentuan Fouad Shehab presidentea bezala. Beraz, Libanoko gaitzak ezin dira ulertu sistema komunitarioa suposatzen duena ulertu gabe. Estatuaren ahulezia, komunitateen mirabekeria interes atzeritarrekiko, tentsio erlijiosoak eta beste horren beste arazo sistema komunitarioaren ondorioak dira.

Konfesionalismoaren iturria aurkitzea konplikatu da. Egia da *milletak* Otomandar Inperioan existitzen zirela eta Libanok oraindik mantentzen duen ezaugarri bat dela. Baina *millet* hauek ez ziren inoiz politikarekin nahastu. Hau Mandatu Frantsesak utzitako bereizgarritasuna da, sistema komunitarioa instituzionalizatu baitzuten. Baina komunitarismoa Libanoko barne ezaugarritzat har dezakegu. 1943tik sistema hau aldatzeko edo erreformatzeko aukera asko egon dira, eta, esan bezala, Libanoko elite propioak izan dira aldaketa ekidin dutenak. Sistema komunitariorik gabeko Libano bat imajinatzea denbora galtzea izango litzateke. Izan ere, sistema honek talde erlijiosoen arteko elkarriketa bideratu du, beste mota bateko erregimen autoritarioei ateak itxiz, nahiz eta batzuetan sistema komunitarioak gatazkak ekiditen eraginik ez izan. Dakiguna da lehendik Libanok zatiketa erlijioso handia zeukala eta egoera hori bideratzeko modu bat izan zela sistema komunitarioa politikarekin integratzea.

Libano gehien baldintzatu duten kanpo erabakiak garai kolonialetik datozela esan daiteke. Komunitarismoa instituzionalizatzear gain, Frantzia da herrialdea Siriatik banandu izanaren arduraduna ere. Frantsesek eskualdean eragin handiagoa izateko sortu zuten Libano. Aliatu maronitei Estatu bat emanez, bide batez, Siriari Mediterraneoko kostaldea kendu zioten. Honetaz gain potentzia kolonialek hartu zituzten beste erabaki batzuek eragina izan dute Libanoren gainean, desegonkortasun faktore bezala. Horren adibiderik handiena Israelgo Estatuaren sorrera izan da. Jakina da Israelen sorrera eskualdearentzat suposatu duen desegonkortasuna. Erabaki horrek Libano kaltetu egin du, Israelgo Estatuarekin gatazka ugari izan baititu. Israeldarren Libanorako estrategia segurtasun eremu bat sortzea izan da. Israel berak kontrolatzen ez duen lurralde batetik erasoak jasotzearen beldur da. Horregatik Libanon komunitate kristaua aliatutzat hartu zuen, Libanorekin daukan muga lasaitzeko asmoz. Errefuxiatu palestinarrek Libanotik erasotzen hasi zirenean bere aliatuak ziren milizia kristauak aktibatu zituen. Gudan Libanoren hegoaldea okupatu zuen, beti segurtasun eremu bat ezartzeko nahiarekin. Gerora izan diren Israelen operazio militarrek, 33 egunetako guda barne, segurtasun espazio bat sortzea bilatu dute. Azkenean Israelek Nazio Batuen esku-hartzearekin lortu du betidanik bilatu duen segurtasun espazioa sortzea.

Egun hiru dira Nazio Batuek Israelen inguruan zabaldutako bake misioak: FPNUL, Libano eta Israelen artean, FNUOS, Golaneko mendateetan eta ONUVT, Israelen eta beste herrialde arabiarren arteko bakea mantentzeko. Argi geratzen da Israel Libanoren desegonkortasunen iturrietako bat izan dela historikoki, baina aipatzekoa da misio horiek eurentzako segurtasun espazio bat ezartzea izan dutela helburu. Israelek politika Libanoarrean egindako injerentziak aliatu maroniten defentsan izan dira, horiek herrialdea Israelekiko baketsu mantentzeko. Bestalde, deigarria da 2006ko Nazio Batuen 1701 erresoluziotik aurrera Israel eta Libanoren arteko harremanak nahiko onak izan direla, eskualdearen testuingurua kontuan hartuz, nahiz eta Hezbollahren eta Iranen eragina Libanon gora egin duen.

Siria, Israelekin batera, Libanon militarki gehien esku-hartu duen herrialdea da. Siriak betidanik izan du Libano integrazteko desira. Mandatu kolonial frantsesak bere lurraldeak bi zatitan banatzean, Siriari teknologikoki aurreratuen zegoen lurraldea kendu zioten eta Mediterraneorako sarrera zaildu ere. Horregatik Siriari ekonomiarentzat beti izan da garrantzitsua Libanorekin harreman onak mantentzea. Siriak aldameneko herritik bilatu duena egonkortasuna izan da, Libanoko desegonkortasuna Sirian ere pairatzen delako. Hala ere, gogoratu behar da Siriak guda bitartean izandako papera. Siriak edozein lehiakideren garaipena ekidin nahi zuen, nahiz eta honek gudaren luzapena suposatu. Guda irabazteko aukera izan zuenean Ta'ifeko akordioak inposatu zituen. Ta'ifeko akordioekin Siriak modu nabarmenean baldintzatu zuen politika Libanoarra. Akordio horiek komunitate kristau eta musulmanaren arteko botere desorekak berdinu zituen. Akordioek Libano gudatik atera eta egonkor bihurtzea lortu zuten. Hurrengo urteetan Siriari okupazioak egonkortasuna mantentzeko ahalegina egin zuen. Egia da Siriari okupazioa demokraziaren garapenaren aurka joan zela, baina herrialdeari inoiz bizi izan duen garairik baketsu eta egonkorrena eman zion. Ezin dugu baloratu Siriaren esku-hartzeak gizarte Libanoarraren gainean izan duen eragina, berori komunitatearen arabera desberdina izan delako. Baina badakigu Siriaren injerentzia anitzak ez direla Libanon desegonkortasun gehien sortu izan dutena.

Ideologia transnazionalak bere eragina izan dute Libanon, batez ere herrialde arabiarren batasuna bilatu dutenek, nasserismoa eta panarabismoa, adibidez. Ideologia hauek kanpo faktoretzat hartzea uste okerra izango litzateke, Libanoko barne eragileak izan zirelako ideologia horiek goretsi eta onartu zituztenak. 50 eta 60ko hamarkadetan ulergarria da panarabismoa Libanoko musulmanen artean zabaldu izana. Ideologia hau korrante antiinperialista gisa zabaldu zen Ekialde Hurbiletik. Libanoko musulmanak komunitate maronitagetik gutxietziak sentitzen ziren eta askok Siria Handiaren ametsaren alde egin zuten. Beraz Guda Hotzaren bitartean Ekialde Hurbilean gertatutako fenomeno hori Libano barneko beste ezaugarri bat dela esan daiteke, nahiz eta egia den garai hartako koiuntura Libanon eraginak izan zituela. Urte horietako kanpo injerentzia handiena Estatu Batuek 1958an Beiruten egindako lehorreratze militarra izan zen, baina horrek ez zuen Libanoko bilakaera politikoan eragin handirik izan. Gertakari horrek argi erakutsi zuen nolatan Libanoko eliteek arazoak dituztenean kanpo aliatuak bilatzen dituzten. Beraz, Libanok jasaten dituen injerentzia ugari barne aktoreek sustatuak direla baieztatu daiteke. Egoera hori bera izan zen Libanoko guda zibila horrenbeste luzatu zuena. Barne eragileek kanpo aktoreen laguntza eskatu zuten, eta hauek egoeraz baliatu ziren, ondorioz, guda luzatu zelarik.

Sistema komunitariotik eratortzen den Estatuaren ahulezia da kanpo eraginaren aurrean Libano horren iragazkor egiten duena. Ezinezkoa izango litzateke 1958ko Estatu Batuen interbentzioa Libanoko Estatua sendoa izan balitz. Izan ere, Estatuaren segurtasun organoek baretuko zuten Kamal Youmblatten matxinada. Sistema komunitarioak interes sektarioak lehenezten ditu Estatua ahultzen duen bitartean. Baina gorago azaldu dugun bezala, Estatuaren ahulezia ez da sistema komunitarioaren ondorioa soilik. Estatua minimoa bada, aipa-

tutako elite diru-gose eta ustelek urteen zehar sustatu dituzten neurri ekonomiko-koen ondorioa da. Neurri ekonomiko hauek gizarte apalarentzat kaltegarriak izateaz gain, Estatuaren bideragarritasuna kolokan jarri dute, hark hartu dituen zor itzelak medio. Merkatuaren “esku-ikusezinaren” injerentziak izan dira Estatu Libanoarra espresio minimora murriztu dutenak eta herrialdeak dituen barne desberdintasun ugariak eragin dituena. Desberdintasun hau desegonkortasunerako iturri bat delarik.

Libanok jasaten duen beste desegonkortasun iturri bat, kanpo faktoreen artean kokatu daitekena, herrialdeak jasan dituen errefuxiatuen olatu handiak dira. 70 hamarkadan errefuxiatu palestinarrekin eta egun errefuxiatu siriarrarekin Libano krisi handiak pairatu ditu. Errefuxiatuen jario hauek Libanok daukan oreka erlijioso hauskorra kolokan jartzen du eta hortik gatazkak erortzen dira. Baina horretaz gain kontuan izan behar da Libanok daukan tamaina txikia eta milaka errefuxiatuei babesa ematea gizartean eragiten dituen desorekak. Libanon bizi izan diren krisi humanitarioak, krisi ekonomikoa eta demografiko eragin dute, desegonkortasunerako arriskua eraginez. Herrialde txiki honek izugarritzko esfortzua egin du gudatik ihes egiten duten pertsonak babesteko, baina komunitate internazionalak ezer gutxi egin du egoera baretzeko. Errefuxiatuen olatuak desegonkortasuna eragin dute Libanon eta komunitate internazionalaren ardura da Estatu Libanoarrari arlo honetan laguntzea, horrela, gerora egon daitezkeen gatazkak ekidin daitezzen.

Oro har, Libano kanpo injerentzia asko jasotzen dituen herrialde bat da. Hau historian zehar gertatu izan da eta egun gertatzen jarraitzen da. Lan honetan ikusi dugun bezala kanpo injerentzia hauek batzuetan desegonkortasun krisiak sortu dituzte, Nazio Batuen 1559 erresoluzioa bezala. Baina Libanoko desegonkortasuna kanpo eraginak sortzen dituela esatea okerra da. Libano barneko berezitasunek egiten dute herrialdea horren desegonkor eta horren ahul kanpo eraginaren aurrean, nahiz eta, batzuetan, krisiak kanpotik eratorriak diren. Libano horren ezegonkorra bada daukan barne egitura politiko eta sozialagatik da. Gakoa ez dago herrialdeak dituen erlijio eta komunitate desberdinen aniztasunean. Boterea eta baliabide ekonomikoak nola banatzen diren da Libano pairatzen duen ezegonkortasuna ulertzeko gakoa. *Zu'amak* euren komunitateen gain izugarritzko kontrola daukate, eta komunitatea zenbat eta handiagoa izan, eurek botere gehiago lortzen dute. Komunitateen arteko norgehiagokan mesedetuta ateratzen direnak komunitateen eliteak dira. Horregatik liskarra bilatzen da komunitateko kide apalak komunitateari lotuta eta fidel jarraitzeko. Sistema politiko komunitarioa, barne desberdintasunei lotuta, herrialdea kontrolatzen duten elite ustelekin da krisi politiko amaigabea eragiten eta sortzen duena, eta egoera honetan kanpo potentziak euren saria lortzeko azeri moduan aprobetxatu egiten dira.

5. Glosarioa

– Arabiar Errepublika Batua

Errepublika Arabiar Batua 1958 eta 1961 urteen artean Siria eta Egipto bateratuz osatu zen Estatu bat izan zen. Garai artan Gamal Abdel Nasser presidente egiptoarrak herrialde arabiarrek Estatu bakar batean biltzeko asmoa zeukan. 1958an Siriaren Estatuaren eskakizunez Egipto eta Siria Estatu bateratu batean bildu ziren. 1961ean Siriar Armada Estatu kolpe bat eman zuen, ez baitzegoen ados Egiptok hartzen ari zen nagusitasunarekin, eta Siria batasunetik atera egin zen.

– Baabdako deklarazioa

2012ko ekainaren 11an Hizketa Nazionalerako Komitea Baabdako presidentearen jauregian batu zen. Bileran Siriako gudak Libanoko iparraldean eragindako desegonkortasunak eztabaidatu ziren. Eztabaidan puntu batzuk hitzartu ziren. Euren artean Guraren kontagioa ekiditeko “disoziazio” printzipioa, Libanoko talderik gudan ez parte hartzea eta komunitateen arteko tentsioa ekiditeko konpromisoa.

– Bagdadeko paktua

Paktu hau (CENTO: Central Treaty Organization bezala ezagutua) Erresuma Batuak Ekialde Hurbilean Sobietar Batasuna geldiaraziko zuen bloke bat osatzeko asmoarekin bultzatu zuen. NATOren eredu hartuz Erresuma Batuak 1954an garai hartan zituen aliatuak bloke batean bildu nahi zituen eta Bagdaden fundazio bilerak eman ziren. Bagdadeko paktuetan Iran, Irak, Pakistan, Turkia eta Erresuma Batua berak hartu zuten parte. Bestalde, nahiz eta ez izan kide Estatu Batuen onespina zeukan. Bloke honek ez zuen arrakastarik izan, bere jaiotzatik partaideak ateratzen joan baitziren. 1958an Iraken Estatu kolpe bat eman zen eta bloketik atera zen. Gainera blokeko partaideek laguntza behar izan zutenean segurtasun mekanismoek ez zuten eraginkortasunik izan. Azkenean 1979an Iraneko erregimen islamikoak boterea hartu zuenean CENTOtik atera zen eta hau ahaztuta geratu zen.

– Camp Davidko bake prozesua

Yom Kipurreko guda etenda zegoen 1973tik eta Anwar el-Sadat presidente egiptoarrak Israelekin bake itun bat sinatu nahi zuen. Israelen partez Menachem Begin lehen ministroak parte hartu zuen negoziaketetan. Negoziazioak Camp Davideko etxe presidentzialean eman ziren 1978an Jimmy Carter presidentea bitartekari papera hartuz. Bake akordioan Israelek Sinaiko penintsula bueltatu zion Egiptori, eta honek Israelgo Estatua aintzatetsi zuen. Egiptok Israelgo Estatua onartu izana ondorio larriak izan zituen Ekialde Hurbilean, Egipto izan zen hori egiten lehena.

– **Eisenhower doktrina**

Eisenhower doktrina militar geostrategiko bat da. Honen arabera Estatuak eraso bat jasotzen badu bere erantzuna neurrigabeko errepresaliak izango dira. Estrategia militar hau etsaiak erasoan aurrean disuasio tresna bezala funtzionatzen du. Libano 50ko hamarkadan doktrina militar hau hartzen dut Estatu Batuen defentsa promesa daukalako.

– **FNUOS**

Nazio Batuen bake misio bat da FNUOS. Hau 1974an jarri zen abian Israel eta Siriaren artean bakea mantentzeko. Yom Kipurreko gudaren amaieratik frontera liskarrak ohikoak ziren bi herrialdeen artean, batez ere Golango gainetan. Nazio batuen segurtasun kontseilua 1250 kasko urdinen hedatzea baimendu zuen. Misio hau gaur egun arte iraun du, nahiz eta Siriako 2013ko gudarekin parte-hartzaile batzuk alde egin duten.

– **FPNUL**

Libanoko gudaren bitartean, 1978an, Israelek operazio militarrik egin zituen Libanoko lurraldean eta lur eremuak okupatu zituen. Estatu Libanoarra Nazio Batuen aurrean babesa eskatu zuen eta Segurtasun Kontseiluak 425 eta 426 erresoluzioak onartu zituen. Hauen arabera Israelek Libanoko lurraldetik ateratzeko agindua zeukan eta Kasko Urdirin batzuk bidali ziren ikuskapen lanetan. 1982An Israelen bigarren inbasio bat egon zen baina Kasko Urdirin ezin izan zuten ezer egin. 2006An 33 Egunen Guda eman zen Israel eta Hezbollahen artean. Nazio Batuek bakea sustatu zuten eta bake misioaren eskumenak handitu zituen 1701 erresoluzioaren bitartez. Erresoluzio hau 15.000 soldadu hedatzeko baimena eman zuen eta Libano eta Israelen artean "lerro urdina" deitutako zonalde desmilitarizatu bat ezarri zuen. Bake misio hau jardunean jarraitzen du.

– **Hizketa Nazionaleko Komitea**

Hizketa Nazionaleko Komitea alderdi eta komunitate garrantzitsuenen buruak biltzen dituen batzar bat da. Hau ohiz kanpokoak diren gai garrantzitsuen inguruan jarduteko bildu egiten da. Komite honen helburua konplexuak diren gaiak adostasunaren bitartez konpontzea da.

– **Millet**

Inperio Otomandarrean Millet bezala ezagutzen ziren juridikoki antolatutako komunitate konfesionalak. Komunitate hauen eliteak komunitatea antolatu eta gobernatu egiten zuten Sultanari obedientzia eskainiz. Komunitate juridiko hauek oro har estatuarenak ziren eskumen batzuk hartzen zituzten. Euren artean ezkontzak, herentziak, edukazioa, osasuna eta zergen batzea.

– **Neoliberalismoa**

Georges Corm historialariak erabilitako terminoa 90ko hamarkadan Rafik Hariri Lehen Ministroaren ideologia definitzeko. Cormen arabera neoliberalismoa politika neoliberalak eta abertzaleak batzen dituen ideologia da. Terminoren sorrera Haririk egiten zituen kanpainengatik eman zen, izan ere Libano berri bat eraikiko zuela zioen.

– **ONUVT**

Israelgo Estatuaren sorrerarekin lehenengoko liskarrak eman ziren herrialde arabiar eta palestinarren eta Israelen artean. Bien arteko su-etena bermatzeko Nazio Batuek bake misioan begiraleak bidali zituen. Egun begiztatze lanak egiten dituen bake misio hau jardunean jarraitzen du.

– **Sabra eta Xatilako sarraskiak**

1982an guda zibilean Beiruteko mendebaldean Sabra eta Xatilako herrietan errefuxiatu palestinarren aurka gertatutako sarraskiak izan ziren. Sarraski hauek Falange Libanoarraren milizia kristau maronitengatik burutuak izan ziren Eile Hobeikaren aginduz. Sarraskiak Bashir Gemayelen hilketari eta Darmoureko sarraskiari (PAEk 1976ean Libanoko herri kristau batean egindako erasoan gertatutako sarraskia) erantzun bezala egin zituzten. Hauek Israelgo armadaren gelditasun eta ezagutza pean egin ziren. Gurutze gorriaren arabera 2400 pertsona hil ziren gerora munduan zehar zarata sortuko zuen gertakizun honetan.

– **Sevresko Ituna**

Itun hau Sevresko hiri frantsesean negoziatu zen 1920an Lehen Mundu Gerraren irabazleen (Estatu Batuak salbu) eta Inperio Otomandarraren artean. Akordioetan Inperioarenak ziren lurraldeak aliatuen artean banatu ziren. Britania Handia Irak, Transjordania eta Palestinarekin geratuko zen. Frantzia Siria eta Libano eskuratuko zituen. Grezia eta Italia egun Turkiarenak diren kostalde eremu batzuk eskuratuko zituzten. Bi estatu berri sortzeko akordioa hartu zen, Armenia eta Kurdistan. Azkenik Bosforo eta Dardaneloen itsasarteetan nabegazioa askea izango zen, komisio internazional batek zuzendua. Itun honek ez zuen arrakastarik izan, nahiz eta Sultan otomandarrak akordioak sinatu. Turkiar nazionalistak boterea eskuratu zuten eta ez zuten onartu. Estatu Turkiar berria Anatoliako penintsula osoa mantendu zuen. Geroago 1923ko Lausanako Hitzarmena Sevresko Ituna baliogabetu zuen.

– **Sykes-Picot ituna**

Itun hau Frantzia eta Britania Handia sekretuan negoziatu zuten 1916an Lehen Mundu Gerraren bitartean. Aliatuek Inperio Otomandarra garaituta bere lurraldeak nola banatuko zuten adostu nahi zuten. Ekialde Hurbilean zehar mugak zehaztu zituzten eta lurren banaketa hipotetikoa egin zuten. Britania Handia Iraken hegoaldea, Transjordania eta Palestina eskuratuko zituen eta Frantzia Siria, Libano eta Iraken iparraldea. Itun hau ez zen zuzenean aplikatu, baina guda ostean egongo ziren negoziaketetan interes Frantses eta Britainiarren oinarria izango zen.

– **Yom Kipurreko guda**

Guda hau 1973an hasi zen Egipto eta Siriak osatutako koalizio batek ustekabeen Israel erasotu zutenean. Erasotzaileen helburua 1967ko “Sei egunen gudan” galdutako lur eremuak berreskuratzea zen. Egiptok Sinaiko penintsula eta Siriak Golango gainak berreskuratu nahi zituzten. Guda 19 egun iraun zuen eta amaiera Nazio Batuen erresoluzio batekin (Segurtasun Kontseiluaren 338 erresoluzioa) eman zen. Egiptok Sinaiko penintsularen kostaldearen zati bat berreskuratu zuen.

– **Zedroen Iraultza**

2005eko otsailaren 14an Rafik Hariri Lehen Ministroaren erailketaren ondorioz bereziki Beiruten eman ziren mobilizazioak izan zen Zedroen Iraultza. Mobilizazio hauetan Siriar okupazioaren amaiera eskatzen zen, ulertzen baitzen Siriako zerbitzu sekretuek antolatu zutela atentatua. Gainera parlamenturako hauteskunde berrien antolaketa eskatzen zen. Bi helburuak bete ziren. Urte horretako hauteskundeetarako maiatzaren 14ko mugimendua sortu zen, iraultzaren espiritua batzen zuena. Koalizio honek irabazi zituen hauteskundeak, 71 diputatu lortuz.

– **Zu'ama**

Zu'ama bezala ezagutzen dira Libanoko elite ekonomiko eta politikoak. Euren boterearen oinarria erlijioan, gaitasun ekonomikoetan edo influentzian oinarritzen da. Zu'amak area geografiko batean baliabide ekonomikoen kontrola daukate eta familiaren prestigioaren legitimitatea daukate. Bezeroak erakartzeko eta euren interesak defendatzeko gaitasuna daukate, horrela erregimen klientelar bat sustengatzen dute.

– **1943ko Paktu Nazionala**

1943ko Paktu Nazionala idatzi gabeko komunitateen eta entitate garrantzitsuenen arteko akordioa da. Libanoko balore politiko eta kulturalaren osagarria da, izan ere, komunitateen arteko berdintasun politikoa aldarrikatzen du. Libano herrialde independente bezala aldarrikatzen da mundu arabiarraren barnean. Gainera komunitateen arteko boterearen kuoten banaketa adosten da, Presidentea Maronita, Lehen Ministroa Sunita eta parlamentuko presidentea Xiita.

– **1969ko Kairoko itunak**

1969 urtean Armada Libanoarraren eta talde armatu palestinarren arteko lehenengo liskarrak eman ziren. Honek gobernu krisi bat eragin zuen eta presidentea zen Rachid Karame dimititu egin zuen. Armadaren burua zen Emile Bustanyk boterea hartu zuen. Gizarte libanoarra palestinarren alde kokatu zen eta egoera lasaitzeko Bustanyk Armadaren eta miliziano palestinarren arteko akordio bat bilatu zuen. Gamal Abdel Nasserren babesarekin bilera batzuk antolatu ziren Kairon. Hauetan talde palestinar armatuak Libanoko hegoaldeko muga aske mugitu ahal zitezkeela adostu zen. Gainera palestinarren errefuxiatu kanpalekuak palestinarrek kontrola zezaketen eta errefuxiatu eta miliziano palestinarrek hiritartasun libanoarra eskuratu zezaketen.

6. BIBLIOGRAFIA

Liburuak

- CABELLO RODRIGUEZ, José Luis (2016) *Panorama geopolítico de los conflictos 2016*. “Líbano”. Madrid: IEEE
- CORM, Georges (2006) *El Líbano contemporáneo, historia y sociedad*. Bartzelona: Edicions Bellaterra.
- GUTIÉRREZ DE TERÁN Ignacio (2003) *Estado y Confesión en Oriente Medio: el caso de Siria y Líbano. Religión, taifa y representatividad*. Madrid: UAM Ediciones.
- LIJPHART Arend (1995). *Self-Determination versus Pre-Determination of Ethnic Minorities in Power-Sharing Systems*. KYMLIKA Will (Konp.) “The Rigths of Minority Cultures”, Oxford, Oxford University Press.
- MÉOUCHY, Nadine (2002). *France, Syrie et Liban 1918: Les ambigüités et dynamiques de la relation mandataire*. Damas, Frantzia: Institut Français d'études arabes de Damas.
- TSEBELIS Georges: *Veto Players: How Political Institutions Work*. Princeton University Press, 2002 (32.or)
- VILLARES, Ramón eta BAHAMONDE, Ángel (2001) *El mundo contemporáneo. Siglos XIX y XX*. Madrid: Santillana Ediciones Generales. Mikel Aizpuru, Arantza Bilbao eta Gidor Bilbao (Itzul.) (2004). *Gaur egungo mundua. XIX eta XX mendeak*, Bilbo. EHUKo Argitalpen Zerbitzua.

Artikulu akademikoak

- ANGOSO GARCÍA, Ricardo (2008). “El sistema político libanés y sus actores. Auge, decadencia y declive de un modelo en crisis”. Espainia: Monografias CESEDEN 102 (Konp.) *El Oriente Proximo tras la crisis del Líbano*, IEEE. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4552393> 2018/06/11 Kontsultatua.
- BARROSO CORTÉS, Fco. Salvador (2016). “Por qué el Líbano no puede contar con una politica exterior independiente”. Espainia: IEEE. Ministerio De Defensa. <http://www.ieee.es/publicaciones-new/documentos-de-opinion/2017/DIEEEEO23-2017.html> 2018/03/04 kontsultatua.

- CHARAF EL DINE, Fahima (1993). *La cuestión libanesa: particularidad local y factores externos* IEPALA. (Konp.) “El juego de la estrategia Mediterráneo”. Sumario Nº16, IEPALA, Instituto de Estudios Políticos para América Latina y África. <http://www.eurosur.org/ai/16/16-4.htm#Heading4> 2018/06/10 Kontsultatua.
- GARCÍA, Paloma (2015). “La configuración de Oriente Próximo tras la Primera Guerra Mundial”. *UNISCI Discussion Papers Nº37*. Madrid: Universidad Complutense de Madrid. <https://www.ucm.es/data/cont/media/www/pag-72478/UNISCIDP37-3GARCIA.pdf> 2018/06/15 Kontsultatua.
- JALLOUL, Hana (2008). “El feudalismo político del sistema confesional libanés” *UNISCI Discussion Papers Nº16*. Madrid: Universidad Complutense de Madrid. <https://www.ucm.es/data/cont/media/www/pag-72513/UNISCI%20DP%2016%20-%20Jalloul.pdf> 2018/06/11 kontsultatua.
- LION BUSTILLO, Javier (2012). “Líbano 1975-1990: ¿teatro de confrontación o fuente de inestabilidad regional?” *Revista paz y conflictos* Nº5 (66-92or.) <http://revistaseug.ugr.es/index.php/revpaz/article/view/467> 2018/03/10 Kontsultatua
- LION BUSTILLO, Javier (2014). “Líbano y Siria: entre la disociación y el desbordamiento” *Revista CIDOB d'Afers Internacionals Nº108* (213-235or)
- THOMAS DE ANTONIO, Clara María (1993). “Las comunidades libanesas y su incidencia en la problemática actual” *Espania: Philologia hispalensis Nº8*, Universidad de Sevilla. http://institucional.us.es/revistas/philologia/8/art_21.pdf 2018/06/11 Kontsultatua.
- VELASCO DE CASTRO, Rocío (2008). “La dinastía jumblat y su influencia en la historia contemporánea y moderna del Líbano”, *Norba Revista de Historia Nº21* (241-258.or), Universidad de Extremadura, 2008. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3209791> 2018/06/12 Kontsultatua.

Kazetaritza artikulak

- CUSACKS, Robert (2016) "Corruption on the coast: Lebanon for sale". Londres: The New Arab. <https://www.alaraby.co.uk/english/indepth/2016/10/14/corruption-on-the-coast-lebanon-for-sale> 2018/04/2018 Kontsultatua.
- DAHI, Omar (2014). "Las crisis de los refugiados en el Líbano y en Jordania: la necesidad de invertir en el desarrollo económico". Oxford: *Revista Migraciones Forzadas*, University of Oxford. <http://www.fmreview.org/es/siria/dahi.html> 2018/06/11 Kontsultatua.
- DEL PINO, Domingo (1976). "¿Quiénes combaten en el Líbano?" El País. https://elpais.com/diario/1976/06/15/internacional/203637611_850215.html 2018/06/17 Kontsultatua.
- EL TIEMPO (1990). "Incierto futuro de Michel Aoun". Colombia: Archivo El tiempo, Reuter. <http://www.eltiempo.com/archivo/documento/MAM-11503> 2018/06/18 Kontsultatua.
- LA VANGUARDIA (2018). "*El Líbano presentará proyectos por 16.000 millones en la conferencia de París*". La vanguardia.com: política. <http://www.lavanguardia.com/politica/20180306/441312607383/el-libano-presentara-proyectos-por-16000-millones-en-la-conferencia-de-paris.html> 2018/06/18 Kontsultatua.
- SÁENZ DE UGARTE, Iñigo (2017). "El misterioso caso del primer ministro libanés secuestrado en Arabia Saudí" El Diario.es. https://www.eldiario.es/internacional/Libano-Hariri-secuestrado-Arabia-Saudi_0_706929750.html 2018/06/11 Kontsultatua.

Web orriak

- CREDIT SUISSE AG (2014). *Global Wealth Databook 2014*. Zurich: Research Institute (103.or) <https://publications.credit-suisse.com/tasks/render/file/?fileID=5521F296-D460-2B88-081889DB12817E02> 2018/04/13 Kontsultatua.
- "ESTATUA ETA SISTEMA POLITIKOA" 2009ko Hezbollahren komunikatua ikusteko <https://www.musulmanesandaluces.org/hemeroteca/101/manifiesto%20politico%20de%20Hizbullah.htm> 2018/03/04 Kontsultatua.
- EXPANSIÓN (2015) "Deuda pública de Líbano" .Expansión, Datosmacro.com. <https://www.datosmacro.com/deuda/libano> 2018/06/14 Kontsultatua.
- FRANCE DIPLOMATIE. "Fichas de países: Francia y Líbano". Diplomatie.gouv.fr <https://www.diplomatie.gouv.fr/es/fichas-de-paises/libano/francia-y-libano/> 2018/06/15 Kontsultatua.
- INTERNATIONAL FOUNDATION FOR ELECTORAL SYSTEMS (2011) "*Elections in Lebanon*" <https://qifanabki.files.wordpress.com/2011/10/ifes-lebanon-electoral-districts-2011.pdf> 2018/03/21 Kontsultatua.

- TRANSPARENCY INTERNATIONAL (2017). *Índice de Percepción de la Corrupción 2017*. Berlin: Transparency International. https://transparencia.org.es/wp-content/uploads/2018/02/tabla_sintetica_ipc2017.pdf 2018/04/15 Kontsultatua.
- UN.ORG. “FPNUL: Fuerza Provisional de las Naciones Unidas en el Líbano”. ONU.org. <http://www.un.org/es/peacekeeping/missions/unifil/> 2018/06/12 Kontsultatua.

Dokumentuak

- HEZBOLLAH (2009). “Estatua eta sistema politikoa” komunikatua. <https://www.musulmanesandaluces.org/hemeroteca/101/manifiesto%20politico%20de%20Hizbullah.htm> 2018/03/04 Kontsultatua.
- NAZIO BATUAK, Segurtasun Kontseilua (1978ko Martxoaren 19a) “La situación en el Oriente Medio”. Nazio Batuak, 225 eta 226 erresoluzioak. [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/426%20\(1978\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/426%20(1978)) 2018/06/18 Kontsultatua.
- NAZIO BATUAK, Segurtasun Kontseilua (2004ko Irailaren 2a) “La situación en el Oriente Medio”. Nazio Batuak, 1559 erresoluzioa. http://dag.un.org/bitstream/handle/11176/19550/S_PRST_2006_43-ES.pdf?sequence=6&isAllowed=y 2018/07/19 kontsultatua.
- NAZIO BATUAK, Segurtasun Kontseilua (2006ko Abuztuaren 11a) “La situación en el Oriente Medio”. Nazio Batuak, 1701 erresoluzioa. http://www.europarl.europa.eu/meetdocs/2004_2009/documents/dv/120/120906/120906res1701_es.pdf 2018/07/19 kontsultatua.